

## **2005eko MARTXOAREN 14ko BILKURA NAGUSIA**

Lizartzan, bi mila eta bosteko martxoaren hamalauan, goizeko zortziak direnean, Alkatea: Joseba Egibar Artola; Udalkideak: Patxi Ezkiaga Ormazabal, Xabier Arrese Arratibel eta Jose Antonio Imaz Insausti; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

### **1.- AURREKO AKTAREN ONARPENA:**

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

### **2.- LAGUNTZAZKO ARAUEN LEHEN ONARPENA**

#### **LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPEN DOKUMENTUARI EGINIKO IRADOKIZUNEI BURUZKO TXOSTENA**

Lizartzako Arau Subsidiarioen Berrikuspen Dokumentua jendaurrean egon den epealdian 11 iradokizun aurkeztu dira.

**IKUSIRIK.-** Lizartzako Udalak eskatu eta, Pilar Azurmendi Etxegarai Arkitektoak osatutako Lizartzako Arau Subsidiarioen Berrikuspen Dokumentuaren agiriak.

**KONTUTAN HARTUAZ.-** 2004ko Azaroaren 6an amaitu zela, Proiektuaren Aurrerapena jendaurrean egoteko epea.

Lizartzako Arau Subsidiarioen Berrikuspen Dokumentua jendaurrean egon den epealdian 11 iradokizun aurkeztu dira. Hauek dira sarrera dataren arabera ordenaturik, iradokizun bakoitzari buruzko balorazioak:

**1.- Mael Etxaide Alustiza, Construcciones Manuel Etxaide S.L.ren izenean (2004-09-15)**

### Idatziaren edukia:

Arau Subsidiarioen Aurrerapen Dokumentuak Benta Txuri eraikina gaur egungo ezaugarriekin kontsolidatzen du, nahiz eta ordezkapen kasuan eraikina 2m aldentzea eskatzen den gaur egun bide publikoarekin dituen lerrokadurekiko, espaloia zabaltzeko.

Idatziak dio dokumentu honek ez duela kontuan izan irisgarritasun araudiak suposatzen duen aprobetxamendu galera. Gainera, inguruko urbanizazioaren hobekuntzarako egin beharreko lagapenak konpentsatzea eskatzen du aprobetxamendu gehikuntza batekin. Konkrétuki etxebizitza kopurua 2tik 4ra pasatzea eskatzen du eta 280 m<sup>2</sup> eraikietatik 378 m<sup>2</sup>-tara sestraz gaineratik + 182 sestraz azpitik.

Proposamenaren aurreproiektua aurkezten du.

### Balorazioa:

Lizartzako errealitate eraikia, ia osotasunean kontsolidaturik uztea proposatzen du Aurrerapen dokumentuak, izan ere, hainbat elementuren ezarpena desegokia izan arren, berauek ordenazioz kanpo uztea gehiegizko karga ekonomikoa bihur baitaiteke Lizartzakoa moduko Udal batentzat. Errealitate eraiki hau nolabait zuzendu nahian, kasu askotan eraikinen ordezkapenetarako baldintzak ezarri dira, Benta Txuriren kasuan bezala lerrokadurak zuzendu edo bestelako neurriak eskatuz.

Espazio publikoaren mesedetan ordezkapen hauek gauzatzeak interes berezia duen kasuetan, ordezkapen baldintzez gain aprobetxamenduen hazkuntza edo bestelako abantailaren bat ipintzea posible da. Gaia oso ondo aztertu beharra dago, izan ere, ordezkapen baldintzak, emaitza modura jatorrizko egoeraren hobekuntza nabarmena eragin behar baitu.

Manuel Etxaidek eginiko proposamenak, neurri batean espazio publikoaren hobekuntza eragiten du, Elbarrena kaleko eta Elizako bideko

espaloiak zabaltzeko aukera ematen baitu, baina aldi berean kalte nabarmena ere eragiten du, izan ere Etxe Maiterekiko uzten duen tartea (puntu batzutan 3m-tik beherakoa) eskasegia da eta gainera Elbarrena kaletik elizarantz dagoen ikuspegia erabat estaltzen du (ikus argazkia).Beraz, lorturiko aprobetxamendu gehikuntza ez dago proportzioan lortutako hobekuntzekin.

Alde batetik aztertu daitekeela deritzogu gaur egun Benta Txurik duen aprobetxamendua hazi ahal izatea ordezkapena sustatzeko. Baina aurkeztutako proposamen konkretuak ez dirudi baliagarria.

Espaloiak zabalduz eta Elbarrena kaletik elizarantz dagoen ikuspegia mantenduz aprobetxamendu gehikuntza planteatzen duen proposamena lantzea proposatzen dugu hasierako onarpenerako dokumentuan.

A.1.2 Exekuzio unitateko Ordezkapeneko baldintzetan benta Txuri eraikinarentzat ondorengo ordezkapen baldintzak jasotzea proposatzen dugu:

4.6 “ kalifikazio xehekatua” planuan jasotzen diren lerrokaduran mantendu beharko ditu.

Profila: Erdi sotoa, beheko solairua eta bi solairu altu.

Teilatu hegalerainoko gehienezko altuera Elbarrena kalean neurtuta: 9,00 m

Gehienezko azalera eraikia goiko solairuetan: 370 m<sup>2</sup>

Gehienezko azalera eraikia erdi sotoan: 180 m<sup>2</sup>.

## **2.- Jose Martin Belarmendia Uria (2004-09-29)**

Idatziaren edukia:

Illarazu eraikina Arauen barruan sartzea eskatzen dute.

### Balorazioa:

Illarazu eraikina lurzoru hiritar ezinean aurkitzen da, N-240 errepidearen alboan. Mikeleteen egoitza izana, gaur egun etxebizitza modura erabiltzen da.

Aurrerapen dokumentuaren arabera eraikina Ubideak Babesteko Lurzoru Hiritar Ezinean eta Interes Naturalistikoa duten Lurrak Babesteko Lurzoru Hiritar Ezinean aurkitzen da, aldi berean.

Lurzoru mota honetan ez da etxebizitza erabilera edo aisialdi intentsibo erabilera baimentzen.

Kontuan izanik errepidearen alboan aurkitzen dela eraikin hau eta nahiz eta balio kultural edo artistiko handiko eraikina ez izan, historikoki garrantzia baduela uste dugu. Horregatik, eraikina mantentzeak bere interesa izan dezakeela uste dugu. Posible litzateke eraikina gaur egun dituen ezaugarrietan kontsolidatzea, beti ere ondorengo baldintzetan:

- Soilik ondorengo erabilerak baimentzen dira bertan:
  - familia bakarreko etxebizitza
  - landa turismoko establezimendua
  - jatetxea, sagardotegia edo antzekoa
- Ez da eraikinaren zabalpenik baimenduko, gaur egungo okupazioa, azalera eraikia, profila eta bolumena kontsolidatzen direlarik.

### **3.- Manuel Goikoetxea Pagola (2004-10-11)**

#### Idatziaren edukia:

Alde batetik, A6 eremuan, erabilera baldintzei dagokionez, industria bakarra onartzea muga zorrotzegia dela eta enpresa merkantil desberdinak egotea baimendu behar litzatekeela dio.

Bestetik, lurzoru ezineko jarduerak bakarrik baimentzea ez du ikusten oso koherentea. Beharrezko ikusten dute eraikinen erabilera modu zabalago batetan definitzea, beti ere zerrategi jarduerari loturik, hau baita beren asmo bakarra.

Eran berean, espaloia egitea gehiegizkoa eta zentzugabea dela iruditzen zaiola dio.

#### Balorazioa:

Gaur egun Goikoetxeandia zerrategiak okupatzen duen lursaila eremu industrial modura kalifikatu denean, aurreko arauetan zuen mugapena zabalduz, jarduera hori kontsolidatu eta garatzeko aukerak emateko asmotan egin da. Beti ere, herri gunearekiko modu honetako jarduera batek dituen onura eta kalteak eta herri guneak datozen urteetan izango duen garapena aztertu ondoren.

Azterketa honetatik ondorioztatu dugu datozen urteetan zerrategi honek kokapen berean jarraitzea eramangarria dela herri gunearentzat, momentuz ez baitu eragozten Lizartzako herriaren garapena eta ez du interferentzia negatibo larriarik inguruko etxebizitza eremuen funtzionamenduan. Honegatik, zerrategia bere hartan mantentzeko aukera uztea erabaki zen. Baina aldi berean, garbi ikusten dugu beste edozein jarduera industrial ezartzeko aukera uzteak erasan larria suposatuko lukeela herri gunearekiko, bai sor ditzakeen molestia, kalte eta arriskuengatik, baina, batez ere, etorkizunerako herriaren garapenean sortu dezakeen hipoteka larriagatik. Beraz, erabat justifikaturik dagoela deritzogu eremu honetan industria bakarra baimentzea, gaur egun dagoen jarduera posible eginez, baina bestelako garapen industrial bat eragotziz.

Idatziak dio itxuraz soilik lurzoru hiritar ezinekoak diren jarduerak baimentzen direla eremu honetan, baina dokumentuak ez dio hau, baizik eta landa lurreko, berezko, lehengaien lehen transformaziorako industri jarduerak baimenduko direla. Modu honetara, gaur egun eremu honetan garatzen den

zerrategi jarduera kontsolidatzea da helburua, gehienez ere, aipatutako motako bestelako jardueraren bat garatu daitekeelarik bertan.

Espaloiari dagokioean, 6.2. unitatearen kasuan, urbanizazioaren parte bezala ikusten dugu eta eremuaren beste unitatean aldiz, gutxienez lagapena egin beharko litzatekela uste dugu. Espaloiaren beharra, momentuz jarraitasunik izango ez badu ere, etorkizunean, herrigunetik hilerrirako oinezko bide baten parte izango den aldetik, oso garrantzitsutzat jotzen dugu.

#### **4.- Javier Malcorra Arsuaga, Agua de Insalus S.A. (2004-10-20)**

##### Idatziaren edukia:

Agua de Insalus S.A. enpresak garatzen duen jarduera dela eta beharrezkoa ikusten dute ur iturriak babestea beren osasun baldintzak kaltetu ditzaketen agenteengandik. Insaluseko ura Erabilgarritasun Publikokoa deklaratu zen 1888ko martxoan (Real Orden de 17 de Marzo) eta 1.968ko uztailaren 15eko Aginduaren bidez Insalusko ur iturriei babes perimetro bat eskaini omen zitzaien.

Aurrerapen dokumentuak Akuiferoak kutsatzeko arriskua duten lurzoruak definitu eta erregulatzen dituen arren, erregulazio hau eskasa eta orokorregia kontsideratzen dute.

2004. urtean eginiko azterketen ondorioz, Insalusko uren iturrien babes perimetroaren barnean 135 Ha-ko gertuenezko eremu bat finkatu dute non hainbat jarduera erabat murriztea eskatzen duten.

Aipatutako eremua babes bereziko eremu bezala sailkatzea eskatzen dute, ingurumen edo baliabide naturalen babeserako. Honela, Arau Subsidiarioen dokumentuan Insalusko ur iturrien babes perimetroa eta, bereziki, Gertueneko Eremua edo mugapen zorrotzenena jasotzeko eskatzen dute, azken hau babes bereziko eremu modura kalifikatuz.

### Balorazioa:

1973ko uztailak 21-eko Mehategi 22 Legea eta Mehategiko Arautegi orokorra onartzen duen 1978ko abuztuak 25eko 2857 Dekretuak, Ur mineraleen ustiapen titulartasuna dutenen eskubideak zehazten ditu eta babes eremuan eman daitezken jardueren erregulazioa egiten du.

Mehategien legearen 28. artikulua ezarritakoaren arabera, ur Mineralen ustiapenaren eta probetxamenduaren titulartasuna dutenen Erabilgarritasun eta ustiapen eksklusibitatea ezartzen du, era berean, hauen babes eremuan garatu edo sustatu daitezken erabilera kaltegarriak ekiditeko eskubidea ematen die titularrei. Babes eremu honetan garatu beharreko jarduerak, aurrez, Eskualdeko Industri Ministeritzaren baimena behar dute, eskuratu beharreko beste baimenez gain. Burutu beharreko jarduerak ustiapenaren titulartasuna dutenen gainean eraginik balute, hauek, indenminazio eskubidea izango lukete.

Mehategiko Arautegi orokorra onartzen duen 1978ko abuztuak 25eko 2857 Dekretuaren( Lege orokorraren garapena burutu zuena), 43. artikulua ezarritakoaren arabera, Urak ustiatzeko baimen edo Kontsezioak, hauen erabilera eksklusiboa ezartzen du eta titularrei hauen erabilerari eta iturrien kopuru eta kalitatearen babeserako dagozian baldintzak ezartzeko eskubide osoa ematen die, kontsezioaren iraungintasunean. Honetarako, Titularrek, Babes eremuan garatu daitezken jarduera kaltegarriak ekiditeko eskubidea izango dute.

Babes eremuan burutu nahi den edozein indusketa edo lurrazpiko mugimenduak aurrez, Industria eta energia Ministeritzaren baimena izan beharko luke, jaso beharreko beste baimenez gain.

Industria eta energia Ministeritzak, Babes eremuan garatu nahi den eta Uraren probetxamendu normalean eragina izan dezaken edozein jarduerari baimena eman aurretik, ustiapenaren titularrari audientzia emango dio, expedientea ebatsi aurretik.

Babes eremuan garatu ahal izateko jardueren baimen administratiboak hirugarren bati sortu diezaiokeen kalteak kontutan hartu gabe emango dira eta beraz, uraren ustiapenean eragina izan dezakeen jarduerak sortutako kalteen ardura berea izango da, bere kasuan titularrari sortutako kalteei dagokien kalteordainak bere gain hartu beharko dituelarik.

Balorazio eta Lurzoru Erregimenari dagokion 1998ko apirilak 13ko 6 Legeak ezarritakoaren arabera, Nolabaiteko izaera berezia duten edo erabilera publikoko izaerari dagokion babesak izan behar duten lurrak, lurzoru hiritarrezineko sailkapena izango dute. Hala ere Legeak ez du inongo kasutan ezartzen planeamendu eskumena duten administrazio publikoek, beren planeamenduan Iturburuei dagozkien babes eremua sartzera behartuta daudenik ez eta gertueneko zonaldeari dagokion aipamenik edo hauei dagokien erabilera mugapena ezarri behar denik ere.

Edozein kasutan, Agua de Insalus-ek Babes eremu gisa mugatutako eremua, Aurrerapen Dokumentuan Lurzoru Hiritarrezin gisa sailkatuta dago eta zehatzago lurazpiko uren babeserako eremuari dagokion eremuan. Eremu hauetan, onartutako erabilerak oso mugatuta daude. Hasteko, lurzoru hiritarrezina denez, Estudio hirogeologikoaren 7.1 atalean aipatutako erabilera Industrial eta hiritarrak jadanik debekatuta daude. Nekazaritza eta Abeltzaintza jardueri dagokionean, Aurrerapen Dokumentuak jasotzen duenaren arabera, hauek garatzerakoan, izaera extensiboa izan beharko lukete eta lurazpiko urak ez kutsatzeko beharrezkoak diren neurri guztiak hartzerara behartzen ditu, horretarako dagokion azterlana aurkeztu beharko delarik, Udal baimen eskariarekin batera.

## **5.- Milagros Aizpurua Alkorta (2004-10-25)**

### Idatziaren edukia:

Bengoetxea baserriaren inguruko lurretan gaur egun nekazaritza lanak egiten omen dira. A2 eremuak lursail hauek bereganatzen ditu.



Idatziak honakoa eskatzen du:

- A2 eremuaren garapenerako soilik beharrezko diren lurrak hartzea.
- Gainerako lursailak baserriaren etxe aurre modura uztea.

#### Balorazioa:

A2 eremuaren garapenarekin Elbarrena kalea eta Araxes errekaaren arteko lurrak herritaratu nahi dira. Alde batetik etxebizitza berriak egin ahal izateko. Baina aldi berean herriko espazio publikoen sarea osatzeko garatzen da eremu hau. Honela, Bengoetxea eta Iribarren baserrien inguruan partzela libre pribatu zatiak uztea komenigarria izan badaiteke ere bertako etxebizitza intimitatea bermatzeko, gainerako lurzoruak publikoa izatera pasa behar du, etxebizitza kopuruarekiko proportzio egokian dauden espazio berde, plaza, jolastoki, oinezko ibilbide eta abar ordenatu ahal izateko.

#### **6.- Milagros Aizpurua Alkorta (2004-10-25)**

##### Idatziaren edukia:

A2 eremuko ordenazioa aldatzea proposatzen du:

- Elbarrena kalearekiko paraleloa den kale berria zubiarekin zuzenean lotzea proposatzen du
- Irakaskuntza ekipamendua mutur batetara desplazatzea proposatzen du
- 25 x 13 metroko okupazioa duten eraikinak proposatzen dira ondorengo profilarekin:
  - erdi-sotoa (garajea)
  - behe solairua
  - hiru solairu altu
- guztira 80 etxebizitza antolatzea proposatzen da.

Proposamenaren krokis bat aurkezten du.

### Balorazioa:

- A2 eremuan antolatzen den bide berria zubiraino luzatzea oso interesgarria litzatekeela uste dugu eta lehen onarpenerako prestatu beharreko dokumentuan aukera hau aztertzea proposatzen dugu.
- A2 eremuko ordenazio zehatzari dagokionez, aurrerapen dokumentu honek ildo nagusiak zehazteko asmoa izan du, xehetasuneko gaietan proposamen irekia delarik. Honela, ondorengoak lirateke planteatzen diren ildo nagusiak aurrerapen dokumentuan:
  - o Elbarrena kalearekiko paraleloa izango den kale berria eta honek bide sarearekin izango dituen loturak eta jarraitasuna
  - o Araxes ertzeko pasealekua
  - o Kalitatezko espazio libre publikoak lortzea
  - o Eraikinen altuera mugatzea espazio publikoen eguzkitzea bermatzeko
  - o Etxebizitza dentsitate orekatua planteatzea tarteko dentsitateak ordenatuz

Ildo nagusi hauei jarraituz xehetasuneko ordenazioa aztertuko da lehen onarpeneko dokumentuan jasotzeko. Hala ere, aurrerapen dokumentuan proposatzen diren 50 etxebizitzak, eremuarekiko eta Lizartzako herri egiturarekiko kopuru doitu dela iruditzen zaigu.

### **7.- Pedro Urkizar Larrarte eta Angel Garrido Alonso (2004-10-25)**

#### Idatziaren edukia:

Lurzoru hiritar ezinean, baserrien inguruan egin den erregulazioarekin ez daude ados, batik bat, baserrien zabalpenentzat ezarri diren baldintzekin. Honela, lehendik dauden eraikinei beren azaleraren %30eko zabalpena ahalbideratzea proposatzen dute, inolako baldintzarik ipini gabe. Bereziki aipatzen dute ez daudela ados baserriaren zabaltzea baimentzeko gutxieneko

nekazaritza ustiapen bat justifikatzeko beharrarekin eta inguruko txabola, aterpe, eranskin eta abarren desagertzea behartzearekin.

Bestetik, txabolak, babeslekuak eta abar eraikinen zabalpena independenteki gainjartzea proposatzen dute.

Era berean, eraikinek gorde behar dituzten distantziei buruz eskatzen dute eraikin berrien kasuan bakarrik aplikatzea aurrerapen dokumentuak aurreikusten dituen distantziak eta lehendik dauden eraikinen birgaitze kasuetan bestelako distantziak aztertu ahal izatea.

Baita ere, Gotzur Zelai babesteko eremuari dagokionez, eremu hau babesteko Plan Berezia jasotzen duten Arau Subsidiario berriak onartu aurretik, Arau hauek eragiten dioten orori dei egiteko eskatzen dute gaia lantzeko.

Azkenik, Arau Subsidiarioen Berrikuspeneko Aurrerapen dokumentuan lurzoru hiritar ezineko partzela minimoa 3Ha-tan finkatu delarik, jakin nahi dute ea azalera honen barnean kontatu ahal izango diren ondozilegiak.

#### Balorazioa:

- Baserrien zabalpenak baimendu ahal izateko nekazaritza ustiapen minimo bat justifikatzeko exigentziari buruz ondorengo aipatu daiteke:

Eusko Jaurlaritzak onartutako otsailak 11eko 28/97 dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamenduaren hartzepideak behin betiko onartzeko denaren 10. artikulua dio: „lurzoru hiritar ezinean aurkitzen diren etxebizitzak nekazaritza ustiapen bati loturik bakarrik ulertu daitezkeela. Hala ere, jakinik Lizartzako baserri gehienak herri honetako ondare kulturala osatzen dutela, Arau hauek onartzen dute baserri hauetan etxebizitza erabilera, inolako nekazaritza ustiapenik izan gabe ere. Honela, Arau hauetan jasotzen diren baserrietan etxebizitza erabilera mantendu ahal izango da eta baserrietan birgaitze eta eraberritze obrak egin ahal izango dira. Gainera, baserri

bakoitzean gehienez bi etxebizitza egokitu ahal izateko obrak egitea ere baimenduko da. Baina honekin batera, behar beharrezkoa ikusten dugu zabalpenik edo etxebizitza eraikuntza berririk baimendu ahal izateko gutxieneko nekazaritza ustiapen batekiko lotura izatea; lurzoru hiritar ezinean etxebizitza erabilera baimentzearen helburu nagusia nekazaritza ustiapenen mantenua baita.

- Baserrien zabalpenak baimendu ahal izateko inguruko txabola, aterpe, eranskin eta abarren desagertzea behartzeari buruz ondorengo esan daiteke:

Baldintza honen helburua, herri honetako ondare kulturala osatzen duten baserrietan modu desegokian erantsi diren elementu itsusgarriak ezabatzea da, baserriaren zabalpen obrak aprobetxatuz. Zabalpenerako aukeraren truke txukuntze lan hauek exijitzea behar beharrezkoa ikusten dugu.

Agian, baldintza honen idazkera zuzendu daiteke, izan ere, ez baita esan nahi baserriak inguruan dituen eraikin guztiak eraitsi beharko direnik, baizik eta soilik baserriaren jatorrizko eraikuntza distortsionatu eta itsusten dutenak.

- Baserrien zabalpena %30era iristeko proposamenari buruz eta zabalpen honi independenteki txabolak, babeslekuak etab. gehitzeko eskaerari buruz honakoa esan daiteke:

Baserrien zabaltze aukerak mugatu egin dira hainbat arrazoiengatik. Besteak beste, baserrien jatorrizko eraikuntza, forma, bolumena mantendu nahi delako, pieza hauetan distortsio larriak eragin gabe. Bestetik, baserrien zabalpenarekin, nekazaritza ustiapen bati loturik bizi direnei beren bizimodua egungo beharretara egokitu ahal izateko aukera eman nahi zaie, baserriaren bizigarritasun baldintzak hobetuz. Baserrien gaur egungo ezaugarriak ikusita %20 bateko zabalpena nahikotzat jo da behar hauei erantzuteko.

Baserriak gaur egun duen okupazioa finkatzeko, eta ondorioz %20ko zabalpena zehaztu ahal izateko, baserriaren eraikuntza nagusia kontuan izatea litzateke logiko eta egokiena. Baserriari itsatsi gabe edo, itsatsita egonik,

bizitegi erabilera edo honetarako ezaugarriak ez dituzten entitate gutxiko eraikuntzak ez lirateke kontuan hartu behar.

Edozein kasutan, egia da kontutan hartu beharko litzatekeela agian, lizartzan egun dauden baserrien artean bi tipologia desberdin berezi daitezkeela: Jatorrizko baserriak zirenak, zabalera eta hedadura handikoak direnak eta garai batean artetxe izandako eta gerora bizitoki bilakatutako baserriak. Azken hauek, orokorrean, tamaina txikikoak dira. Agian azken hauetan, gehienez, 200 m<sup>2</sup>-rarte solairuko hedadura hartu arteko zabalkuntza baimendu ahal izateko aukera aztertuko da.

- Eraikinek mantendu behar dituzten distantziei buruz ondorengoa esan daiteke:

Eraikin berrientzat ezartzen diren distantziak soilik eraikin berriei aplikatuko zaizkie eta ez lehendik bertan dauden eraikinei.

- Goltzur Zelai babesteko Plan Berezia jasotzen omen duten Arau Subsidiarioen onarpenaren aurretik eragindako oro deitzeari buruz honakoa esan daiteke:

Arau Subsidiario hauetan lurzoru hiritar ezina kategoria desberdinetan banatu da, bakoitzean erabilera erregimen desberdin bat ezarri delarik. Beste batzuen artean, Goltzur Zelai Babesteko Lurzoru Hiritar Ezina kategoria ezarri da eremu honetako paisaia baloreak babestu asmoz. Eremu honen inguruan landu zen Plan Bereziaren dokumentua Arau hauen informazio fasean aztertu da, datu baliagarriak bildu direlarik bertatik, baina Arau hauek ez dute Plan Berezi haren edukia jasotzen bere hartan.

Arau Subsidiarioen Berrikuspen dokumentuak legeak ezartzen duen tramitazioa jarraituko du, honek agintzen dituen bitartekoak erabiliko direlarik herritarrei dokumentu honen berri emateko, haiek dagozkien iradokizun edo alegazioak egin ditzaten.

- Gutxieneko partzela osatzeko ezarri diren 3Ha-tan ondozilegiak sartuko ote diren galderari buruz ondorengoa esan daiteke:

3Ha-tan ezartzen den gutxieneko partzela jabetzan izan beharko da eta ez dira kontuan hartuko ondozilegiak, hauek Lizartzako Udalaren jabetzako lurak baitira.

## **8.- Joxe Antonio Mintegi Arrate, Axurdario Herri Plataformaren izenean (2004-10-25)**

### Idatziaren edukia:

Idatziaren edukia ondorengo puntuetan laburbiltzen da:

1. Idatziaren lehen puntua Lizartzako egoera politikoa eta Arau Subsidiarioen Berrikuspen prozesua hastearen egokitasunari buruzkoa da.
2. Aurrerapen dokumentuaren garapen mailak jendaurreko epea tramite huts bihurtzen duela diote bigarren puntuan, ez duela eztabaidarako biderik ematen. Dokumentu hau erabat erabakita eta xehekatuta dagoela diote, herritarren parte hartzea maila sinboliko hutsean utziz. Aurrerapen tramitean Lizartzako udalerraren lurralde ereduari buruz eztabaidatu behar litzatekeela diote, baina hori jada aurkeztutako dokumentuan erabakita dagoela.
3. Axurdario Herri Plataformak Lizartzako lurralde ereduaren inguruan dituen irizpideak une honetan ez baditu ere plazaratuko, Aurrerapen Dokumentuan azpimarragarriak iruditzen zaizkien atalen inguruan ondorengoa diote:
  - 3.1.- Aurrerapen Dokumentuan udalerriko lurzoru guztia lurzoru hiritar ezina edo lurzoru hiritarra moduan sailkatu dela eta lurzoru hiritar modura sailkatu diren hainbat eremu ez direla hiritarrak diote, ez dituztela honetarako legeak eskatzen dituen baldintzak betetzen. Honela gertatzen dela diote A.2 eta A.4.5 eremuetan eta industria erabilera aurreikusi den eremuetan.

Lurzoru bat hiritar edo hiritargarri sailkatzearen artean alde handia dagoela diote, lurzoru hiritargarrian eraikitzeko dentsitate baxuagoa

onartzen dela, udalari egin beharreko derrigorrezko lagapenak handiagoak direla, etab.

- 3.2.- Planteatu den etxebizitza kopurua hamar urteko perspektiba batean egokitzen jotzen badute ere, ez dute ikusten egoki soilik 14 etxebizitza babestu proposatzea. Bestetik, A.2 eremuko 50 etxebizitzak aldi berean egiteak ez duela Lizartzaren gaur egungo beharrik asetzen eta kanpoko eskaera asetzeko planteatzen direla diote, espekulazio interes hutsaren babesa dela diote A.2 eremurako planteatzen dena.

Babes publikoko etxebizitza kopuru askoz handiagoa aurreikustea eskatzen dute.

- 3.3.- Gaztetxeak okupatzen duen eraikina dagon tokian etxebizitzak egitea ez dela egokia diote, gune publiko eta dotazioen beharra handiagoa delako etxebizitzena baino.

Aurrerapen dokumentuak herria eraikinez betetzen duela, gune libre eta espazio publiko gutxi aurreikusten dituela eta gazteentzako dagoen zuzkidura bakarra kendu egin nahi duela diote.

- 4.- A.2 eremua Lizartzako herritarren interesak asetzera etortzeko ordeztu jabe batzuen interesen neurrira egina dela diote, ondorengo puntuetan oinarritzen direlarik baieztapen hau egiteko:

- 4.1.- A.2 eremua lur hiritarra modura sailkatu da eta bi unitateetan banatu, herri eskola kokatzen den unitatean desjabetzea ezarri delarik. Eremu hau hiritargarri sailkatuko balitz lurjabeek doan laga beharko liokete Udalari gutxienez 500 m<sup>2</sup>-ko lurzorua herri eskola kokatzeko.

- 4.2.- A.2 eremuko unitateetako batean kooperazio sistema ezartzea harrigarria dela diote, udalak eta herritarrak etekin berezirik ateratzen ez duten unitatea izanik.

### Balorazioa:

- 1.- Ez dagokio Arau Subsidiarioen Berrikuspenerako Aurrerapen Dokumentuaren egile taldeari puntu honen balorazioa egitea.
- 2.- Agian lehen puntu horretan aipatzen den egoera dela eta, Aurrerapen Dokumentua prestatu duen talde teknikoaren baitan utzi du Udalak, erabat, Lizartzako Udalerriak izango duen lurralde ereduari buruzko planteamendu bat egitea.

Egia da Aurrerapen Dokumentu honek normalean izan beharko lukeen definizio mailaren muga pasa eta xehetasunezko planteamenduetaraino iritsi dela, baina honek ez du esan nahi inolako erabakirik harturik dagoenik, ez eta gutxiagorik ere. Proposamena talde teknikoak landu du, xehetasunetaraino ere jaitsiaz, baina beti ere, Lizartzako herriari aurkeztu eta honek dokumentuan jasotzen diren funtsezko gaietaz eztabaida dezan. Garrantzitsua ikusten dugu planteatzen den lurralde ereduari buruz hausnarketa eta eztabaida gertatzea, Udalak honetarako bideak jarri beharko dituelarik.

- 3.1.- Aurrerapen Dokumentuan Lizartzako lurzoru guztia lurzoru hiritar ezina edo lurzoru hiritarra modura sailkatu da. Hau honela egitearen arrazoia sinplea eta ulergarria dela uste dugu. Gaur egun indarrean dauden Arau Subsidiarioetan onarturik dagoen sailkapena eta Aurrerapen Dokumentuak proposatzen duena alderatuz gero ikus daiteke erabaki honen arrazoia.

Gaur egun indarrean dauden Arauetan lurzoru hiritarra mugatzen duen lerroak kanpoan uzten ditu gure iritziz herri gunea osatzen duten lur zati txikiak. Aurrerapen Dokumentuan planteatzen dena zera da, Lizartzako herriaren zabalkundea mugatzea, herri gunearen baitan geratu diren partzela libre pribatuak (lurzoru hiritarrean gehienak) okupatuz herri egitura osatzea, lehendik dauden espazio publikoei jarraitasuna emango dioten espazio publiko berriak sortzea, bide sarea osatzea eta aldi berean,



datozen 8 urteetarako aurreikusten diren etxebizitza beharrak herri gunearen baitan antolatzea, soilik beharrezko diren lurak okupatuz, beharrezkoak ez diren okupazioak eragotziz.

Honela, beharrezkoa ikusi dugu gaur egungo Arauek duten hiri lurraren mugapen lerroa doitzea herri gunearen baitan egonik, lerro honetatik kanpora geratu ziren lur zati txikiak hartzeko. Honela, lur sail hauek eraikuntzak kontsolidatutako eremuen baitan aurkitzen direla uste dugu, eta beraz, lurzoru hiritar modura sailkatu daitezkeela.

Gainera, lur zati txiki hauek ez dute beren baitan eremu independente bat osatzeko adinako azalerarik edo entitaterik. Gainera, erabat loturik daude, kasu gehienetan, jadanik lurzoru hiritarra den lursailaren antolakuntzarekin, behar beharrezkoa delarik eremu bateratuak osatzea.

Honela gertatzen da, adibidez, A.2 eremuarekin. Eremu honen azalera 14.485m<sup>2</sup>-koa bada, hauetatik ia 10.000 m<sup>2</sup> jadanik lurzoru hiritarra modura klasifikaturik daude gaur egun indarrean dauden Arau Subsidiarioetan. Aurrerapen dokumentuak muga lerro hau zabaldu egiten du soilik. Beraz, A.2 eremua lurzoru hiritargarri modura sailkatzea ezinezkoa litzateke, zati handi batetan jadanik lurzoru hiritar modura sailkatu baitago. Era berean, bi eremu desberdin sortzea ere ezinezko ikusi dugu. Izan ere, proposatzen den antolamendua ezin baita bi zatitan banatu, espazio guzti honek antolamendu bakarra eta bateratua eskatzen duela uste baitugu.

Beste eremu batzuen kasuan, berriz, eremuaren, beraren azalera murrizak ezinezko bihurtzen du lurzoru hiritar ezinari exijitzen zaizkion baldintzak bete ahal izatea, besteak beste, gutxienez 1.000 m<sup>2</sup>-ko azalera eta 30 m<sup>2</sup>-ko diametroa inskribatu daitekeen lorategiak aurreikustea, etab. Hala gertatzen da, adibidez, A.4.5 unitatean.

Lurzoru bat hiritar edo hiritargarri sailkatzearen artean aldea dagoela nabarmena da, baina kasu honetan alde hori ez da existitzen. Izan ere,

adibidez, lurzoru hiritargarrian dentsitate baxuagoak onartzen direla egia bada ere, argitu behar da lurzoru hiritargarrian 75 etxebizitza/ Ha arte onartzen direla eta Aurrerapen Dokumentu honetako eremuetan ez dela gainditzen 34,5 etxebizitza/Ha.

Honela, gure iritziz, herri gunearen baitan lurzoru hiritargarriak sailkatzeko aukerak errealak ez izateaz gain, honela sailkatuak izateak suposatuko lituzkeen abantailak (dentsitate mugatuak, lagapenak, etab.) neurri handi batetan betetzen direla uste dugu.

- Eremu libreen sarea handitu da, eremu berde berriak osatuz. Hauen arteko jarraitasuna lortzea izan da helburuetako bat. Guztira, 10.000 m2 espazio libre berri eta 12.000 m2 lorategi eremu berri antolatu dira.

Guztira, 14.921 m2 sailkatu dira hiri zoru gisa. Berrikuspena egin aurretik, Lizartzako herriguneak 137.742 m2 inguru zituen, beraz lehendik hiritaratutako azalerarekiko, %10,83-ko azalera handipena suposatzen du. Berrikuspenaren iraungintasunean, Lizartzako biztanlegoa, 200 bat biztanletan handitu daitekela aurreikusi da, honek egungo biztalegoaren %30- aren hazkundera suposatuko luke. Beraz, Arau berrikuspen honetan, biztanlegoa lurzoruaren proportzio hirukoitzean hazi daiteke.

Berrikuspen dokumentuaren helburuekin bat dator proportzio hau, izan ere helburuetako bat jadanik hiritarrak diren hainbat lursail berantolatzera eta hobetzera zuzendutako antolakuntza proposatu bait da.

Bizitegiko erabilera, sailkatu diren lursailetatik %71(10.720 m2) ingurutan proposatu da. Beste %30<sup>a</sup>, (4200 m2), Industriako erabilerarako proposatu dira.

Zonaldea	Azalera m2 tan	Dentsitatea ( etxe/ Ha-ko)
Zuloaga	2.462 m2	24,37 etx/ha
Zerrategia*	5.450 m2	40,36etx/ha

Etxeaundia*	2.808 m2	21,36 etx/ha
-------------	----------	--------------

\* Hiri zoru gisa sailkatu diren lursail zatiei dagozkien datuak dira.

Guztira beraz, 14.921 m2 sailkatu dira hiri zoru gisa.

Guzti hauek, lurzoru hiritar ezin gisa sailkatuta dauden arren, lurzoru hiritarren baldintzak betetzen dituzte, izan ere berau inguratzen dituzten lursailak erabat hiritaratuta baitaude eta beharrezkoak diren azpiegitura guztiak baitituzte. Arestian aipatu dugun bezala, lursail hauek, herri sarearen barruan kokatutako "irlak" direla esan dezakegu.

Datu hauek dentsitate baxu eta ertainei dagokie. Hau bat dator, Lizartzari buruz Babes Ofizialeko etxebizitzak sustatzeko arloko planarekin eta Tolosaldeako zatikako plan aurrerapenak jasotzen duenarekin.

Adierazleak definitu ditugun ataleko formula erabiliz, ondorengo emaitzak ateratzen ditugu:

Lurzoruaren okupazioa berrikusketa aurretik: 43 biztanle/ Lurzoru hiritar Ha bakoitzeko.

Lurzoruaren okupazioa berrikusketa ondoren: 57 biztanle/ lurzoru hiritar Ha bakoitzeko

3.2.- Babes ofizialeko etxebizitza kopuruari dagokionez, Zerrategi aldean 14 etxebizitza proposatu dira eta Alondegiko eraikinean 9 etxebizitza babestu. Guztira beraz, 23 etxebizitza babestu eraikitzea proposatzen da. Honek proposatzen diren etxebizitza kopuru osoaren % 28-a suposatzen du. Hala ere, kopuru hori handitzeko eskaria aztertzea egokia iruditzen zaigu.

Berrikusketa dokumentua idazterakoan, Gaur egun Lizartzak dituen Dotazio kopurua eta hauen azalera aztertu ditugu, Plan Partzial bati egokitutako gutxienezko lagapenak aplikatuz, era honetara Lizartzaren behar handienak zeintzuk ziren ikusi eta hauek nola osatu aztertu dugu.

Lizartzak gaur egun 342 etxebizitza ditu. Berrikuspena ondoren, 420 etxebizitza izatera pasatuko litzateke. Hau dela eta azterketa egiterakoan, 500 etxebizitza bitarteko dotazio beharra aztertu dugu.

Azterketa honen emaitza nagusiak hauek izan dira: herriak egun dituen gabezi handienak: Lorategi azalera, eskola eremuen azalera eta kirolerako azalera handitzea direla. Hau dela eta, proposatutako eremuetan, hazkundeari lotutako azalera baino herriaren behar osoak orekatuko litzuzken azalera lortzen saiatu gara.

<b>Dotazioa</b>	<b>Gaur Egun</b>	<b>Egoki litzatekeena</b>
Komertziala	450 m2	420 m2
Ekipamendu soziala- Administraboa	1300 m2	1260 m2
Lorategiak	3065 m2	6300 m2
Haurrentzako jolastokiak	770 m2	1260 m2
Kirola	1100 m2	2520 m2
Eskolarra	330 m2	5040 m2
Aparkalekuak	220 ud	420 ud

Kirol azaleraren beharra kontutan hartuta, lehen onarpen dokumentuan eremu bat sailkatzea aztertuko dugu.

3.3.- Egia da gaur egungo Gaztetxeko eremuan jardute unitate bat proposatzen dela. Erabilera hori non kokatu aztertuko da.

4.1.- Bi unitate hauekin bakarria osatuko da, lagapen bidez eskola eremua eskuratzeko.

4.2.- Bukatzeko A-2 zonaldean, arestian aipatu bezala, hiritaratze egitasmo bakarraren beharra dagoela uste dugu eta zonalde honetan proposatu den Kooperazio sistema beharrezkoa ikusten dugu, batez ere eskola eremuaren garapen behararen premia kontutan hartuta.

## **9.- Juan Carmelo Goikoetxea (2004-10-27)**

### Idatziaren edukia:

Ez dago ados egiten den etxebizitza tipologiarekin. Ondoz ondoko etxebizitza gehiegi proposatu direla dio eta hori ez datorrela bat Lizartzako herriaren izaerarekin dio.

Bestetik A-1 zonaldeko probetxamenua oso txikia dela ez dela aurrera aterako esaten du.

### Balorazioa:

Lizartzako arau berrikuspenak aurreikusi dituen 82 etxebizitza berrietatik, soilik 6 dira ondoz ondoko etxebizitzak, honek guztira kopuru osoaren % 7-a suposatzen du soilik. Kopuru txikia del iruditzen zaigu.

A-1 eremuari dagokionean, egin den proposamena, lortu nahi den helburuarekin bat datorren proposamena dela eta justu bada ere, doitu dagoela iruditzen zaigu.

## **10.- Manuel Barriola Tolosa (2004-11-08)**

### Idatziaren edukia:

Muñoa Baserria egungo baserriei buruz Arau Subsidiarioen Berrikuspenerako Aurrerapen dokumentuak duen zerrendan jaso dadila eskatzen du.

### Balorazioa:

Nahiz eta Udal Erroldako datuen arabera ez egon etxebizitzarik Muñoa eraikinean, Jabetza eskrituren arabera baserria da Muñoa, berari loturako lursailak dituelarik. Eraikin honen baserri definizioa zalantzakoa bada ere,

Lizartzan onarturik dago Muñoa baserria dela, eta beraz, gaur egungo baserrien zerrendan sartzea posible ikusten dugu.

### **11.- Roke Rezabal – Ondare Historiko Artistiko Zerbitzua – Foru Aldundia (2004-10-18)**

#### Idatziaren edukia:

Ondorengo puntuetan laburbildu daiteke idatziaren edukia:

- 1.- Balizko arkeologi eremuaren izendapenak ez du eraikina babesten, haren datu historikoak lortzeko tresna da soilik
- 2.- Eraikinaren barrukoa ezagutu gabe (zurajea, distribuzioa, balore etnografikoko elementuak, e.a.) ezin dugu ondasunaren balorazio objektibo bat eduki. Balore handikotzat jotzen dituzte: Asura, Iribarren, Bengoetxe, Zuloaga, Iraolabekoa, Apeztegi. Balore gutxikotzat jotzen dituzte, berriz, Arrate, Agirrebarrena, Iruntzia.
- 3.- Magdalena eraikina balore handiko eraikina kontsideratzen dute, erretaula eta bere zerua bereziki, kanpotik desitxuratua badago ere.

#### Balorazioa:

Foru Aldundiko Ondare Historiko Artistiko Zerbitzuak emandako gomendioak kontuan izango dira Katalogoa osatzerako orduan.

Lizartzako Arau Subsidiarioen Berrikuspen Dokumentuari eginiko iradokizunei buruzko txostena aztertu eta eztabaidatu ondoren, zera proposatu da:

- 1.- Lizartzako Udalak aurkeztutako, Lizartzako Arau Subsidiarioen Berrikuspen Dokumentuaren agiriari, lehen onarpena ematea.

2.- Agiri hori jendaurrean jartzea, hilabeteko epean, hau, Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala eta egunkari batean argiraratzen den azkeneko datatik kontatuko delarik.

Lizartzako Arau Subsidiarioen Berrikuspen Dokumentuaren lehen onarpenerako proposamena, aztertu eta eztabaidatu ondoren, gehiengo absolutuaren “quorum”arekin, aho batez onartua izan da.

### **3.- LIZARTZAN SUPERMERKATU BAT ZEHARKAKO KUDEAKETA BIDEZ USTIATZEKO ETA LOKALAREN EKIPAMENDUA GAUZATZEA**

Bi mila eta bosteko otsailaren hiruan ospatutako bilkuran, Lizartzan Supermerkatu bat zeharkako kudeaketa bidez ustiatu eta lokalaren ekipamendua gauzatzeko lanen kontratuaren adjudikazio proposamena luzatu zen, CARMEN SARAILEGI GOIKOETXEA Andrearen alde, bera izan delako lehiaketan punturik gehien lortu dituen, 45 puntu.

Bilkura horretan luzatutako akta aztertu eta berarekin ados, zera proposatu da:

- 1.- Enkanteko eskaintza balioestea eta Lizartzan Supermerkatu bat zeharkako kudeaketa bidez ustiatu eta lokalaren ekipamendua gauzatzeko lanen kontratua, CARMEN SARAILEGI GOIKOETXEA Andreari, HIRUREHUN (300,00) (gehi Bez) €-tan adjudikatzea.
- 2.- Hamar eguneko epean, kontratistari esleipen kontratuaren ebazpen hau jakineraztea, hogeita hamar eguneko epean, administrazio kontratuan, esleipena gauzatzeko. Halaber, gainerako partaideei jakinerazpen bera egingo zaie.

### **KLAUSULAK**

**Lehena.-** LIZARTZako Udalak, Batzar Nagusiko erabakiaren bitartez, LIZARTZAn Supermerkatu bat zeharkako kudeaketa bidez ustiatzeko

eta lokalaren ekipamendua gauzatzeko gestioa, CARMEN SARALEGI GOIKOETXEA Andreari adjudikatzen dio, espedientean dauden, Proiektu eta Lehiaketa Baldintza Erregulatzailen Pleguarekin ados. CARMEN SARALEGI GOIKOETXEA Andreak, bere ordezkartzan, jakinean eta onartu egiten dituela aitortzen du, sinatzeko unean kopia hartu ondoren.

#### **Bigarrena.-**

1.- CARMEN SARALEGI GOIKOETXEA Andreak, Lizartzan Supermerkatu bat zeharkako kudeaketa bidez ustiatzeko eta lokalaren ekipamendua gauzatzeko kudeaketaren konpromezua hartzen du, Baldintza Plegu Administratibo eta Tekniko-Fakultatiboan arabera.

2.- Kontratuaren prezioa, HIRUREHUN (300,00) + (BEZ) € da; hilerokoa.

Baldintza Pleguetako, V. Klausulak dioenaren arabera, Lizartzako Supermerkatuko lokalaren ekipamendua 66.552,21€ kostako denez, CARMEN SARALEGI GOIKOETXEA Andreak, 50%-aren ordainduko du, hau da 33.276,11 €

Horren arabera, kontratu honen indarraldia, kontratu honen dataren hurrengo egunetik aurrera, ZORTZI (8) urtetakoa izango da; hau da, 2005eko Apirilaren 1ean hasi eta 2013ko Martxoaren 31 bitarte.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, Lizartzan Supermerkatu bat zeharkako kudeaketa bidez ustiatu eta lokalaren ekipamendua gauzatzeko lanen kontratua, CARMEN SARALEGI GOIKOETXEA Andreari, HIRUREHUN (300,00) (gehi Bez) €-tan adjudikatzea, aho batez onartu da, bera izan delako lehiaketan punturik gehien lortu dituen.

#### **4.- UDALBIDE-REN LAGUNTZA**

#### **AURRETIKOAK**



## I

Udalbide Elkarlan Elkarteari dirulaguntza emateko proposamenaren berri ematen da; delako elkartearen xede nagusiak dira euskara babestu, garatu eta sustatzeko elkartasun fondoa eratzea eta euskal lurralde guztietako udal eta herriaren arteko harremana bultzatzea; hartara, helburua du ekimenak sustatzea hizkuntza, kultura, kirola, ingurugiro, lurralde antolaketa, ekonomia garapena eta gizarte ongizate esparruetan, baita udalerrriak eskumenak esleituak dituzten gainerako gaietan ere.

## II

Egiaztatu da kreditu egokia eta behar adina dagoela, dirulaguntza emateak berarekin dakartzan betebeharrak ekonomikoak aurre egiteko.

## III

Udal honetako aurrekontuen betearazpen oinarrietan UDALBIDE Elkarlan Elkarteari alde dirulaguntza emateko aurreikuspena ezarri da, izen eta guzti ezarri ere, eta egiaztatu da elkartearen xedeak bat datoze udal eskumenekin, eta horrek frogatzen du bete egiten dela interes publiko eta sozialarekin bat etortzeko baldintza, huraxe baitute xedebai udalerrri honek bai aipatu elkarteak.

### **ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

Ikusirik indarra duten arauen artean aplikatu beharrekoak, bereziki UDALBIDE Elkarlan Elkarteari Estatutuak eta haren sarrera Bazkunen Erroldan, eta orobat ikusirik Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra eta Toki Erakundearen Zerbitzu Arautegia.

Udalak, osoko bilkuran aho batez ebatzita, ERABAKI DU:

- 1.- UDALBIDE Elkarlan Elkarteari zenbateko honetako dirulaguntza ematea: BI MILA EHUN ETA LAUROGEITA ZORTZIKO euro LAUROGEITA ZAZPI

zentimo (2.188,87) €, 2005eko ekitaldirako jarduketa programan aurreikusita dauden jarduerak finantzatzeko, indarra duen antolamendu juridikoarekin eta udal eskumenarekin bat baitatoz jarduera horiek.

2.- Ebazpen hau jakinaraztea bai UDALBIDE Elkarlan Elkarteari, bai Udalaren Diruen Kontu Hartzaileari.

3.- UDALBIDE Elkarlan Elkarteari onetsitako zenbatekoa ordaintzea, dirulaguntzaren baldintzak arautzeko hitzarmen bat aldez aurretik sinatuta.

#### **5.- 2004 URTEKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA**

Idazkari-Kontuhartzaileak osatu duen, Lizartzako Udaleko 2004ko aurrekontuaren likidazioa eta horren dokumentuak aztertu ondoren, eta beraiekin ados egonik, Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Entitate Lokalen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, hau

#### **EBATZI DUT**

Lehena.- 2004ko Lizartzako Udaleko Aurrekontuaren Likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

<b>KONTZEPTUA</b>	<b>PARTZIALA</b>	<b>GUZTIRA</b>
Altortegiko Izakin Likidoak 2004-12-31ean		63.572,62
Kobratu Gabeko Saldoak, 2004-12-31ean	240.764,73	

Kobratu Gabeko Saldoak, itxitako ekitaldikoak	62.690,55	
Kobratu Gabeko Saldoak, Aurrekontuz Kanpok.	1.061,41	304.516,69
<b>DENERA</b>		<b>368.089,31</b>
Ordaindu Gabeko Saldoak, 2004-12-31ean		- 367.520,79
Aurtengo Ekitaldikoak	282.492,41	
Itxitako Ekitaldikoak	77.487,34	
Aurrekontuz Kanpokoak	7.541,04	
<b>ALTXORTEGI-GERAKIN GORDINA</b>		<b>568,52</b>
Saldo Kobragaitzak		-----
Altxortegi-gerakin likidoa		<b>568,52</b>
Finantzaketa lotua duten gastuetarako altxortegi-gerakina		-----
<b>Gastu Orokorretarako Altxortegi Gerakina</b>		<b>568,52</b>

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio-espeditentearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako foru arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzarrari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

### **2004 EKITALDIKO KONTUEN AZTERKETA ETA ONARPENA**

Lehendakari jaunak hartu du hitza eta 2004 ekitaldiko Aurrekontuaren eta Ondarearen Administrazioaren kontuak aztertzeari ekingo zaiola esan du, guztiak ere jendaurreko erakustaldian jarriak eta Kontuen Batzorde Bereziak aztertutakoak, Batzorde honek dagokion espeditentean agertzen diren erregelamenduzko txostenak igorri dituelarik.

Idazkariak txosten horien irakurketa azkarra egin ondoren, eta kontu horiek erregelamenduzko ereduak betetzen dituztela eta behar besteko frogagiriak dituztela egiaztatuta, horiei buruzko informazio zabala eskuratu, eta bertaratutako jaun-andreek eskatutako azalpen guztiei erantzuna eman zaielarik, aho batez onartu egin dira.

Bertara etorritako jaun-andreei ohartarazi zaie 781/1986 Legegintza Errege Dekretuaren 460-5 artikuluari jarraiki, nolana ere, Kontu Epaitegiaren kanpo fiskalizazioaren menpe jarri behar direla eta aipatu artikuluko horren aplikazioan, kontuak onartzeagatik erabakiak, akats eta oztopoen zuzenketak hala nola okerrak konpontzeko prozedurak, betearazleak izango direla.

2004 ekitaldiko kontuak aztertu eta eztabaidatu ondoren, onartua izan da.

#### **6.- KREDITU-GAIKUNTZEN ERREGIMENAREN BIDEZ EGIN BEHARREKO KREDITU-ALDAKETARAKO 1 ZK. ESPEDIENTEA ONESTEKO PROPOSAMENA**

Lizartzako Udal honen 2005eko Aurrekontuaren barnean Kreditu-Gaikuntzen erregimenaren bidez izapidetzen den Kreditu-Aldaketarako espedientearen berri eman ondoren.

Idazkari-Kontuhartzaileak jaulkitako txostena irakurri ondoren, zeinak adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarria zaion indarreko araudiari egokitzen zaiola eta, hortaz, bere aldeko txostena ematen baitu.

Onespena proposamena formulatzen duen Ogasun Batzordeak emandako aldeko irizpena irakurririk.

ERABAKI DA:

- 1.- Kreditu-Gaikuntzen erregimenaren bidez egin beharreko Kreditu-Aldaketarako espedientea onestea, 76.210,87 €-tako zenbatekoaz, espedientearekin batera jasotako egoera-orriskari ageri den kontzeptu eta partiden xehekapen berarekin.

2.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da onetsitako Kreditu-Aldaketa Fondoan Kontuhartzailletza Zerbitzuek Kontabilitatean berehalako ondorioekin isla dezaten.

## **7.- U-1 SEKTOREKO HITZARMENA**

**HIRIGINTZA HITZARMENA, LIZARTZAKO UDALAREN ETA LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO U.1 EGIKARITZAPEN UNITATEAREN JABEEN ARTEKOA, AIPATUTAKO UNITATEAREN KUDEAKETA ARAUTZEKO.**

LIZARTZAKo udaletxean, 2005eko martxoaren ... (e)an.

### **BILDU DIRA:**

Batetik, Joseba **EGIBAR ARTOLA** jauna, LIZARTZAKo Udaleko Alkate-Lehendakaria denez.

Eta bestetik, José Ignacio **GALARRAGA URRETAVIZCAYA** jauna, adinez nagusia, jakinarazpenak egiteko Tolosako (Gipuzkoa) Iruñako Etorbideko 12 zk.an helbidea duena, eta 15.966.525-V NAN zk. duena, URBA, UTE Enpresen Aldi Baterako Batasuneko kudeatzaile denez, haren izenean eta hura ordezkatzuz. Aipatutako URBA, UTE Aldi Baterako Enpresen Batasuna 2000ko irailaren 1ean eratu zen, Tolosako notario Emilio Navarro Moreno jaunaren aurrean egindako eskritura publikoaren bidez, 1294 protokolo-zenbakia zuela. Identifikazio Fiskalerako zenbakia G/20710109 da.

Eta egintzaren fedea emango duen Udalbatzaren idazkari Ana **ZABALA GARMENDIA** andrea aurrean dutela.

### **HAUXE ADIERAZI DUTE:**

**Lehenengoa**.- Lizartza udalerriko Plangintzako Arau Subsidiarioen U.1. Egikaritzapen Unitateak berau garatzeko behar diren plangintzako eta kudeaketako tresnak ditu. 1995eko martxoaren

28an Gipuzkoako Foru Aldundiak "Lizartzako Plangintzako Arau Subsidiarioetako U.1. Sektoreko Zatikako Plana" onetsi zuen eta 1996ko uztailaren 30eko 146 zk.ko GAOn argitaratu zen.

**Bigarrena:** Era berean, Hirigintza Kudeaketarako Arautegiko 115. artikuluan jasotakoarekin bat, 2004ko Maiatzaren 24an Lizartzako Udalak onespena eman dio jabeek aurkeztutako eta Eskritura Publiko bidez formalizatutako Birzatiketa Proiektuari. Horren bidez, jabeek dagozkien onurak eta kargak adjudikatu dira eta jabari eta erabilera publikoko lurren lagapena formalizatu da, Zatikako Planean ezarritakoaren arabera.

**Hirugarrena:** Alkatetzaren 2004ko uztailaren 28ko ebazpenaren bidez, U.1 Industrialdea Hiritartzeko Proiektuari hasierako onespena eman zitzaion. Aipatutako ebazpena abuztuaren 11ko 153 zk.ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Hala ere, Araxes ibaiaren gainean egiteko asmoa dagoen zubia dela-eta, eta Espainiako Iparraldeko Ur Konfederakundeak bere txostenetan horren kontrako iritzia eman duenez, Hiritartze Proiektuari ez zaio behin betiko onespenerik eman.

**Laugarrena:** Hiritartze-lanak gelditu izanaren ondorioz, eraikitze-prozesua ere bertan behera utzi da. Horrek guztiak proiektua behin betiko bertan behera uzteko arrisku larria ekar dezake, sustapenari pilatuko zaizkion finantza-zamen ondorioz, eta batez ere Eceiza Etxearen nabe berria egiteko lanetan eragina izango du.

**Bosgarrena:** Ikuspuntu tekniko batetik, Hiritartze Proiektuaren barne dagoen zubi berriaren eraikitze-lanak ez du derrigorrez Eremuko gainontzeko urbanizazioaren eraikitze-lana lotzen. Eta, hortaz, zubiaren aldeko iritzia ematen duten txostenak jasotakoan, Udalak proiektuari behin betiko onespenerik eman gabe.

**Seigarrena:** Elkartu diren alde biek beharrezko elkarrizketak egin ondoren, ados jarri dira eta interes publikoak zein pribatuak beteko dituzten erabakiak hartu dituzte, eta erabakiok dokumentu honen bidez formalizatu dituzte.

### **ERABAKIAK:**

**Lehenengoa-** Bi aldeek beharrezko legezko gaitasuna onartzen diote batak besteari hitzarmen hau luzatu eta izenpetzeko eta berau Fede Onez beteko dutela agintzen dute.

**Bigarrena:** Hitzarmen honen helburua Lizartzako U.1 Industrialdean hiritartze-eta eraikuntza-lanak egiteko baldintzak finkatzea da. Horrela Udalak behin betiko onesten dituen eta Hiritartze Proiektuan sartuta dauden lan guztiak gauzatuko direla bermatzen da, udalaren interesaren ikuspegitik.

**Hirugarrena:** LIZARTZAKo Udalak URBA UTEri baimena ematen dio, U1 Industrialdea Hiritartzeko hasierako onespina duen Proiektuaren barne dauden lanak behin-behinekoz egin ditzan. Baimen honetatik kanpo geratuko dira Araxes ibaiaren gainean zubi berria egiteko lanak.

**Laugarrena:** Eremuaren Xehetasunezko Estudioari behin betiko onespina emandakoan, baimena emango zaio, behin-behinekoz, Eceiza etxeko P4 lursailean nabea eraikitze lanak egiten hasteko, aipatutako Xehetasunezko Estudioan jasota dauden zehaztapenen eta eraikuntza-parametroen arabera. Era berean 0 kotaraino lur mugimenduei dagozkien obrak eta prestaketa lanak baimentzea

**Bosgarrena:** Aipatutako lanak hasi ahal izateko, URBA UTEk berme bat jarriko du, Udalarekin batera 2003ko abenduaren (e)an izenpetutako hitzarmeneko bosgarren klausulan jasotakoarekin bat. Hauxe da

klausula horrek dioena: *“hiritartze- eta eraikuntza-lanak aldi berean egiten badira, hiritartze-lanen egikaritzapena bermatzeko dagokion bermea jarri beharko du sustatzaileak. Aipatutako bermea Udalean jarriko du dagokion Hiritartze Proiektua onesteko orduan.”*

Hiritartze Proiektua oraindik onetsia izan ez denez, bi berme jarriko beharko ditu; bata, hiritartze-lanaren kostu osoaren % 6koa eta bestea eraikiko den zubiaren kostuaren % 6koa.

**Seigarrena:** Era berean, URBA UTEk hirigintza-aprobetxamendu monetarizatuaren % 10a eta eraikuntzako udal tasa ordaindu beharko ditu, 2003ko abenduko Hitzarmenaren bosgarren klausulan jasota dauden epeen arabera. Dena den, hasiera-epea dokumentu hau sinatzen denean hasiko da.

%10a kalkulatzeko aipatutako Hitzarmenaren bosgarren klausulan jasotakoa ezarriko da solairuarterko azalera eraikigarriari dagokionez.

**Zazpigarrena:** % 10ari dagokionez, Udalak lagatako lurzoruan 200 m<sup>2</sup>-ko nabe bat eraiki eta lagatzekoa,, URBA UTEk solairuarterko bat egin beharko du bertan, Udalaren Zerbitzu Teknikoek zehaztuko dituzten eraikitze-ezaugarrien arabera.

**Zortzigarrena:** Lizartzako Udalak ez du eraikitako pabilioientzako jardueralizentziarik emango harik eta Hiritartze Proiektua behin betiko onetsi arte eta pabilioiak eraikitzeko lizentziak eskuratu arte.

**Bederatzigarrena:** Hitzarmen honek izaera juridiko-administratiboa dauka, Lurraren Araubide eta Balorazioei buruzko apirilaren 13ko 6/1998 Legearen 4. artikuluekin bat etorritik (89 zk.ko BOE). Eta Udalbatzak izango du horren inguruan sor daitezkeen gorabeherak eta auziak ebazteko eskumena,



hala badagokio, dagozkion errekurtsio juridikzionalak jarri baino lehen.

Lizartzako Udalaren eta Lizartzako Arau Subsidiarioetako U-1 Ekikaritzapen Unitatearen jabeen artekoa, aipatutako unitatearen kudeaketa arautzeko, U-1 Sektoreko Hirigintza Hitzarmena, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

Era berean, Udaleko Alkate-Lehendakaria den, Joseba Egibar Artola-ri ahalmen osoak ematea erabaki da, Hitzarmen hori sinatu ahal izateko.

## **8.- LANGILEEN LAN HITZARMENA**

Eudel-en Batzorde Eragileak, zera proposatu du:

Langileen ordezkari sindikalekin egin beharko diren negoziazioen zain eta horien kontura, eta ondorioak 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera izanik, Euskadiko Toki Administrazioaren zerbitzura dauden langileen ordainsariek igoera orokorra izango dute kontzeptu guztietan, hain zuzen ere, 2004ko ekitaldiko ordainsariak %2,5 igoz.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, Lizartzako Udaletxeko langile guztiei, langileen ordezkari sindikalekin egin beharko diren negoziazioen zain, igoera hori, hau da %2,5 igotzea, aho batez onartu da.

## **9.- ALKATETZA DEKRETUA**

### **BILKURA NAGUSIRAKO DEIA**

Idazkariak prestatutako espedienteen zerrenda ikusirik, berak lagunduta, eta Antolaketa eta Ihardutze Araudiaren 82.1 artikulua, eta arau baterakorrak, ikusirik, ERABAKI DUT:

**1.- MARTXOaren 14an, goizeko 8tarako,** Bilkura Nagusirako deia luzatzea, hurrengo GAI ZERRENDAREKIN:

- 1.- Aurreko Bilkurako Akta irakurri eta, hala badagokio, onartzea.
- 2.- Laguntzazko Arauen Lehen Onarpena
- 3.- Dendaren adjudikazioa.
- 4.- Udalbiltza-Udalbide-ren laguntza.
- 5.- 2004 urteko Likidazioa.
- 6.- 2005 urteko Aurrekontuaren Kreditu Aldaketa.
- 7.- U-1 Sektoreko Hitzarmena.
- 8.- Langileen Lan Hitzarmena.
- 9.- Alkatetza Dekretuak.
- 10.- Bestelakoak.

**2.-** Idazkariak, Udaleko zinegotziei deia egiteko, beharrezko diren tramiteak burutuko ditu, erabaki hau beteaz.

#### A-4ko LOKALEN EGOKITZEA – OBRETAKO 3. ZIURTAGIRIAREN ONARPENA

**IKUSIRIK.-** 2004ko Martxoaren 17ko Alkatetza erabakiaren bidez, Lizartzako Udalari Laga Beharreko Lokalak Egoitzeko Lanen kontratazio, behin betiko esleitu zituela.

**KONTUTAN HARTUAZ.-** 2004ko Martxoaren 24an, Lizartzako Udala eta Construcciones Francisco Aierbe, S.L.ren artean sinatutako Administrazio Kontratuaren arabera, Lizartzako Udalari Laga Beharreko Lokalak Egoitzeko Lanak gauzatzeko konpromezua hartu zuen.

Guzti hori kontutan hartuaz, zera ERABAKI DUT:

- 1.- Construcciones Francisco Aierbe S.L,k aurkeztu eta Udaleko Arkitektoa den, Pilar Azurmendi Etxegaraik onetsitako, Lizartzako Udalari Laga Beharreko

eta Denda kokatzen den, Lokalak Egoitzeko Lanen 3. ziurtagiria (44.615,83) €-takoa onartzea.

2.- Indarrean dagoen Aurrekontuko 3.0000.601.511.04.01.2004 partidaren kargura, 44.615,83 €-tako gastua onartu eta ordainketa agintzea.

#### A-4 ZUBI BERRIAREN EGOKITZAPENA- OBRETAKO 3. ZIURTAGIRIAREN ONARPENA

IKUSIRIK.- 2004ko Uztailaren 1eko Udalbatzarraren bidez, Lizartzako A-4 Zubi Berriaren Egokitzapen Lanen kontratazio, behin betiko esleitu zituela.

KONTUTAN HARTUAZ.- 2004ko Uztailaren 5ean,, Lizartzako Udala eta Construcciones Francisco Aierbe, S.L.ren artean sinatutako Administrazio Kontratuaren arabera, Lizartzako A-4 Zubi Berriaren Egokitzapen Lanak gauzatzeko konpromezua hartu zuen.

Guzti hori kontutan hartuaz, zera ERABAKI DUT:

- 1.- Construcciones Francisco Aierbe S.L,k aurkeztu eta Udaleko Arkitektoa den, Pilar Azurmendi Etxegaraik onetsitako, Lizartzako A-4 Zubi Berriaren Egokitzapen Lanen 3. ziurtagiria, EHUN ETA BAT MILA eta HIRUROGEI euro BERROGEITA BEDERATZI Zentimo (101.060,49) €-takoa onartzea.
- 2.- Indarrean dagoen Aurrekontuko 3.0000.601.511.02.01.2003 partidaren kargura, 101.060,49 €-tako gastua onartu eta ordainketa agintzea.

#### GIZARTE LAGUNTZAILEAREN ORDEZKAPENA

2004ko Abuztuaren 9ko Dekretuaren bitartez, MARGA OTEGI SEGUROLA, Lizartzako Udaleko Gizarte Laguntzaileari, Arlo Publikoan

Zerbitzuak Betetzeko Borondatezko Eszedentzia onartu zitzaion, berau 2004ko Abuztuaren 6tik indarrean sartu zelarik.

Hainbat gestio burutu ondoren, LIERNI QUINTANILLA ZABALA Anderea izendatua izan zen, hutsik gelditu zen lanpostu hori betetzeko.

2005eko Otsailaren 4ko datarekin, Lierni Quintanilla Zabala Andereak jakinarazi du, Beasaingo Udaletxean lana eskeini direla eta otsailaren 7tik aurrera bertan lanean hasi behar duela.

Berrito Gizarte Laguntzailearen lanpostua hutsik gelditu denez, INEM-era lan eskaintza bat egin, eta Udaletxeko Iragarki Taulan iragarkia jarri da, zerbitzuaren beharragatik, lehenbaitlehen lanpostu hori bete ahal izateko.

Gestio hoiengatik, lau pertsona izan dira, interesatuta agertu direnak:

- .- MAIDER BELTZA BENGOETXEA
- .- LEIRE AGIRREZABALA PASKUAL
- .- LURDES UZKUDUN ELOSEGI
- .- ANA IRISARRI SANCHEZ

Lau pertsona hoiengatik curriculum-ak aztertu ondoren, garbi azaltzen da, MAIDER BELTZA BENGOETXEA Andereak, besteak baino lan-esperientzia gehiago duela.

Guzti hori kontutan hartuta, ERABAKI DUT:

- 1.- Lizartzako Udaleko Gizarte Laguntzaile posturako, MAIDER BELTZA BENGOETXEA Anderea izendatzea, 2005eko Otsailaren 23an lanean hasi behar duelarik.
- 2.- Kontratazio honen iraupena, kontratuaren arrazoia izan den: Funtzionaria den Gizarte Laguntzailea, Arlo Publikoan Zerbitzuak Betetzeko Borondatezko

Eszedentziak dirauen edo eta, lanpostua berriro funtzionari batekin betetzen den bitartekoa izango da.

3.- Udaleko Langileen Erregistroari, dekretuaren berri ematea, dagozkion efektuetarako.

### KORRIKARI LAGUNTZA

KORRIKA 14ko Antolakuntzaren arduradunak, 2005eko Otsailaren 11an, 2005eko martxoaren 10etik 20ra bitartean burutuko den KORRIKA 14 ospatzeko laguntza eskatu du.

Aurkeztutako datuak aztertu ondoren, ERABAKI DUT:

2005 urteko aurrekontuaren kargura, 320,00 €-tako diru-laguntza onartu eta baimentzea.

Udaleko Kontuhartzaitzari, aipatutako 320,00 €-tako diru-laguntza ordaintzeko agintzea.

### NAFARROA OINEZ 2005

IÑIGO ARITZA IKASTOLAK, 2005eko Otsailaren 3an, 2005eko Urriaren 16an Olazti-Ziordian burutuko den NAFARROA OINEZ ospatzeko laguntza eskatu du.

Aurkeztutako datuak aztertu ondoren, ERABAKI DUT:

2005 urteko aurrekontuaren kargura, 300,00 €-tako diru-laguntza onartu eta baimentzea.

Udaleko Kontuhartzaitzari, aipatutako 300,00 €-tako diru-laguntza ordaintzeko agintzea.

## U-1eko HIRIGINTZA LANAK – URBA UTE

**IKUSIRIK.-** 2005eko Urtarrilaren 5eko Alkatetzaren Dekretua, zeinen bidez, URBA UTE enpresari U.1-eko hirigintza-lanak geldiarazteko agindua ematen baitio, Unitate Urbanizatzeko lanetan sartzen den Araxes ibaiaren gaineko zubia exekutatzegatik, U-1en Urbanizazio-Proiektua behin betirako onetsita egon gabe.

**JAKINIK.-** Aipatutako Dekretuan URBA UTEri zehapen-espedientea egiten zitzaiola, azaldutako gertakariengatik, eta 15 eguneko epea ematen zitzaiola egokituz jotzen zituen arazoibideak aurkezteko.

**JAKINIK.-** Epea pasatu ondoren, Jose Ignacio Galarragak, URBA UTEren ordezkaria den aldetik, alegazio-idazkia aurkeztu duela.

**JAKINIK.-** Zubiko obrak exekutatzear gain, urbanizazio-lanak berak exekutatu direla, Urbanizazio-Proiektua onetsita egon gabe; hori dela eta, zehapen-espediente berria hasten da, egindako lan guztiak barne sartzen direlarik eta 2005eko Urtarrilaren 5eko Alkatetzaren Dekretuaren bidez hasitakoa ondoriorik gabe uzten duelarik.

**KONTUAN IZANIK.-** Hirigintza araudiari jarraiki, zehapen-espediente honen ondorioetarako, erantzuleak, obren sustatzailea den URBA UTE enpresa eta obren zuzendaria den Jorge Lizarribar Sans ingeniaria direla.

**KONTUAN IZANIK.-** Lurzoruaren erregimenari eta balorazioei buruzko apirilaren 13ko 6/1998 Legean horren inguruan ezarritakoa, eta Lurzoruaren Erregimena eta Hiri Antolamendua arautzen dituen Legearen Testu Baegina onartzen duen apirilaren 9ko 1346/76 Errege Dekretuaren 178. eta 184. artikuluetan eta hurrengoetan, eta 2187/1978 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Hirigintza Disziplinaren Arautegian ezarritakoa.

**KONTUAN IZANIK.-** Lurzoruaren Erregimenaren eta Hiri-Antolamenduaren Legearen Testu Bategina onesten duen apirilaren 9ko 1346/1976 Legegintzako Errege Dekretuaren 184. artikuluan eta berarekin bat datozenetan ezarritakoa.

**KONTUAN IZANIK.-** Ekainaren 23ko 2187/78 Errege-Dekretuaren bidez onartutako Lurzoruaren Araubidearen eta Hiri-Antolamenduaren Legea garatu eta aplikatzeko Hirigintza Disziplinaren Arautegiaren 1. eta 76. artikuluetan eta hurrengoetan eta, bereziki, 90. artikuluan ezarritakoa.

**KONTUAN IZANIK.-** Euskal Autonomia Erkidegoki Herri-Administrazioen zehatzeko ahalmena arautzen duen otsailaren 20ko 2/1998 Legean horretarako ezartzen dena.

**KONTUAN IZANIK.-** Herri-Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidea arautzen dituen azaroaren 26ko 30/92 Legearen 68. artikuluan eta hurrengoetan eta 96. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa.

Alkatetza-Lehendakaritza honek, **HAU EBAZTEN DU:**

**Lehenengoa.-** Ondoriorik gabe uztea, 2005eko Urtarrilaren 5eko Alkatetza-Dekretuaren bidez, URBA UTEri egindako zehapen espedientea.

**Bigarrenkoa.-** Zehapen-espedientea hastea, hirigintza-araua hausteagatik, sustatzailea den URBA UTE enpresa eta zuzendari teknikoa den Jorge Lizarribar Sans erantzuleztat hartzen direlarik.

Jakinaraztea Hirigintza Disziplinaren Arautegiaren 90. artikuluan jasotako zehapena izan dezaketela, hori guztia prozeduraren instrukziotik sortzen denaren kalterik gabe.

**Hirugarrena.-** Udaleko Idazkari-Kontuhartzailea den, Ana Jesus Zabala Garmendia anderea, Zehapen Prozeduraren Instrukzio-egile izendatzea.

Jakinaraztea espedientea ebazteko konpetentzia duen organoa, Udaleko Alkate-Lehendakaria dela, Lurzoruaren Araubidearen eta Hirigintza-Antolamenduaren arloko premiazko neurriei buruzko martxoaren 6ko 5/1998 Legearen 11. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

**Laugarrena.-** Ebazpen hau ezagutaraztea, oinarritzat hartzen duen txosten teknikoarekin batera, URBA UTE enpresako ordezkariari eta Jorge Lizarribat Sans Jaunari; eta jakinarazpenaren egunetik hasita 15 eguneko epean, zehapen-espedientean egokitzat jotzen dituzten arrazoibide, agiri eta informazio guztiak aurkeztu ahal izango dituztela eta, dagokienean, frogak proposa ditzaketela jakinaraztea; horretarako erabili nahi dituzten baliabideak zehaztu beharko dituzte.

**Bosgarrena.-** Tramite hutsezko ekintzak direnez, akordio hauen aurka ezin da errekurtsorik jarri, interesatuek beraien eskubideendefentsan egokitzat jotzen dituzten ekintza guztien kalterik gabe.

#### MATERIALA BILKETA – GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

**IKUSIRIK.-** Udalak 2004ko abenduaren 3an emandako Alkatetza Dekretua.

**JAKINIK.-** Dekretu horren bidez, urbanizatu ezin den lurrian materiala biltzearen ondorioz hautsitako ordena urbanistiko berrezartzeko espedienteari hasiera ematen zitzaien. Nekazaritza ustiapenari loturik dauden erabilerak baino ez daudela baimenduta eta, hortaz obrarako materialak bertan biltzea ez dago baimenduta.



**JAKINIK.-** Hilabeteko epea eman zitzaiola, lur horretako jabeari, hau da Gipuzkoako Foru Aldundiari, bildutako materialak kentzeko, eta denbora horretan agindua betegabe dago, materialak leku berberan dirautelarik.

**AINZAT HARTURIK.-** Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legeko 84. artikuluan ezarritakoarekin bat, herri-administrazioek emandako lizentzia edo baimenek ez dutela esan nahi titularrak libre daudela tokiko erakundeen lizentziak lortu behar izatetik. Horrenbestez, beste organo batzuen aldetik lor ditzaketen lizentziez gain, derrigorrezkoa da udalaren baimena edukitzea.

**AINZAT HARTURIK.-** Ibaiertzak antolatzeko Arloko Planak espresuki debekatzen duela edozein material biltzea uholdeak izanez gero oztopo izan daitekeen lekuetan, kasu honetan gertatzen den bezala, dauden material, etxola eta makinaren ondorioz.

**AINZAT HARTURIK.-** Hirigintza arloko arauen arabera, nahasitako ordena urbanistikoa berrezartzeko espedienteari dagokionez arduraduna, Gipuzkoako Foru Aldundia dela, materiala bildu deneko lurzatiaren jabea baita.

**AINZAT HARTURIK.-** Lurzoruaren araubide eta balorazioei buruzko apirilaren 13ko 6/1998 Legeko 20. artikuluan eta horrekin bat datozen artikuluetan xedatutakoa, apirilaren 9ko 1346/76 Errege Dekretuko 178. eta 184. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoa (Lurzoruaren Erregimenari eta Hiri Antolaketari buruzko Legearen Testu Bateratua onesten duena) eta 2187/1978 Errege Dekretu bidez onetsitako Hirigintzako Disziplinariburuzko Araudian ezarritakoa.

**AINZAT HARTURIK.-** Lizartzako Udaleko Antolamendurako Ordezko Arauetan ezarritakoa.

Alkate-Udalburu honek, **HAU ERABAKI DU:**

**Lehenengoa.-** Urbanizatu ezin den lurrean materiala biltzearen ondorioz hautsitako ordena urbanistikoa berrezartzeko espedientean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepide Sailari, hilabete bateko epea ematea, ebazpen hau jakinarazten denetik zenbatzen hasita, bildutako material guztia kentzeko. Hala egiten ez bada, Udalak ordezko exekuzioari hasiera emango dio, Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontura.

**Bigarrena.-** Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepide Sailari hamabost eguneko epea ematea, ebazpen hau jakinarazten zaion egunetik zenbatuta, bere eskubideak defendatzeko alegazio eta agiriak aurkez ditzan, egokitzen joz gero.

#### TELEFONO ZENTRALITA BERRIA

**IKUSIRIK.-** Udaletxeko Telefono Zentralitaren kontratua amaitu egiten dela, eta zentralita erosi edo eta berri batengatik aldatu behar dela.

**IKUSIRIK.-** Zentralita berri bat jartzeko, Telyco Tolosa S.L.k egin duen proposamena:

Erostea: 3.169,80 €-ko aurrekontua. Bertan urte bateko mantenimendua sartzen da eta ondorengoak mantenimendu kontratu bat sinatu beharko litzateke.

Hiru urteko alokatzea: Hilero: 100,70 €, mantenimendua barne delarik. Hiru urte ondorenean, erosteko aukera edo eta berria jarri.

**KONTUTAN HARTUAZ.-** Gaur egun dagoen zentralita zaharkitu dela eta bera konpontzeko materialak lortzea zaila dela; beraz, erostea ez dela komenigarria ikusten.

Guzti hori kontutan hartuaz, zera erabaki dut:

- 1.- Telyco Tolosa S.L.k aurkeztutako, TDA15 Zentralita berria jartzea, hiru urteko alokairuan, gero erosteko aukerarekin, hileko 100,70 €-tako kostuarekin.
- 2.- Udaleko Idazkari-Kontuhartzailea den, Ana Jesus Zabala Garmendia ahalmentzea, sinatu behar den kontratua osatu eta formalizatzeko.

#### MATERIALA BILKETA – JOSE MANUEL AGIRREBARRENA

**IKUSIRIK.-** Udalak 2004ko abenduaren 3an emandako Alkatetza Dekretua.

**JAKINIK.-** Dekretu horren bidez, urbanizatu ezin den lurrian materiala biltzearen ondorioz hautsitako ordena urbanistiko berrezartzeko espedienteari hasiera ematen zitzaion. Nekazaritza ustiapenari loturik dauden erabilerak baino ez daudela baimenduta eta, hortaz obrarako materialak bertan biltzea ez dago baimenduta.

**JAKINIK.-** Hilabeteko epea eman zitzaiola, lur horretako jabeari, hau da Jose Manuel Agirrebarrena Ruiz de la Cuesta jaunari, bildutako materialak kentzeko, eta denbora horretan agindua betegabe dago, materialak leku berberan dirautelarik.

**AINZAT HARTURIK.-** Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legeko 84. artikuluan ezarritakoarekin bat, herri-administrazioek emandako lizentzia edo baimenek ez dutela esan nahi titularrak libre daudela tokiko erakundeek lizentziak lortu behar izatetik. Horrenbestez, beste organo batzuen aldetik lor ditzaketen lizentziez gain, derrigorrezkoa da udalaren baimena edukitzea.

**AINZAT HARTURIK.-** Ibaiertzak antolatzeko Arloko Planak espresuki debekatzen duela edozein material biltzea uholdeak izanez gero oztopo izan daitekeen lekuetan, kasu honetan gertatzen den bezala, dauden material, etxola eta makinaren ondorioz.

**AINZAT HARTURIK.-** Hirigintza arloko arauen arabera, nahasitako ordena urbanistikoa berrezartzeko espedienteari dagokionez arduraduna, Gipuzkoako Foru Aldundia dela, materiala bildu deneko lurzatiaren jabea baita.

**AINZAT HARTURIK.-** Lurzoruaren araubide eta balorazioei buruzko apirilaren 13ko 6/1998 Legeko 20. artikuluan eta horrekin bat datozen artikuluetan xedatutakoa, apirilaren 9ko 1346/76 Errege Dekretuko 178. eta 184. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoa (Lurzoruaren Erregimenari eta Hiri Antolaketari buruzko Legearen Testu Bateratua onesten duena) eta 2187/1978 Errege Dekretu bidez onetsitako Hirigintzako Disziplinariburuzko Araudian ezarritakoa.

**AINZAT HARTURIK.-** Lizartzako Udaleko Antolamendurako Ordezko Arauetan ezarritakoa.

Alkate-Udalburu honek, **HAU ERABAKI DU:**

**Lehenengoa.-** Urbanizatu ezin den lurrean materiala biltzearen ondorioz hautsitako ordena urbanistikoa berrezartzeko espedientean, Jose Manuel Agirrebarrena Ruiz de la Cuesta Jaunari, hilabete bateko epea ematea, ebazpen hau jakinarazten denetik zenbatzen hasita, bildutako material guztia kentzeko. Hala egiten ez bada, Udalak ordezko exekuzioari hasiera emango dio, Jose Manuel Agirrebarrena Ruiz de la Cuesta Jaunaren kontura.

**Bigarrena.-** Jose Manuel Agirrebarrena Ruiz de la Cuesta Jaunari, hamabost eguneko epea ematea, ebazpen hau jakinarazten zaion egunetik zenbatuta, bere eskubideak defendatzeko alegazio eta agiriak aurkez ditzan, egokitzen joz gero.

### AGUA DE INSALUS

**IKUSIRIK.-** 2004ko abuztuaren 30ean Lizartzako Udalak, AGUA DE INSALUS S.A. enpresari egindako errekerimendua, (irailaren 3ko 387 irteerazentzako duena). Horren bidez, U-2 sektorean dagoen pabilioiaren jarduera-lizentzia tramitatzeko eskatu zitzaion. Horretarako Jarduera Proiektua aurkeztu behar zuen Toki Administrazio honetan.

**JAKINIK.-** A-5 sektorean ontziraketa-erakina egiteko obren lizentzia 2004ko ekainaren 14an eman zela, Alkatetzaren Dekretu baten bitartez.

**JAKINIK.-** Emandako lizentziak baldintza batzuk ezarri zituela, besteak beste, dagokion Jarduera Proiektua aurkezteko betebeharra, ondoren tramitatu ahal izateko. Era berean, gogorarazi zen oraindik ez zela U-2 sektorean dagoen Pabilioiaren Jarduerari buruzko Proiektua aurkeztu.

**JAKINIK.-** Derrigorrezkoa den jarduera-lizentzia tramitatu ez arren eta dagokion Proiektua aurkeztu ez arren, bai U-2 sektorean dagoen pabilioia, bai U-5 sektoreko ontziraketa-erakina, funtzionatzen ari direla.

**AINZAT HARTURIK.-** EAEko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/98 Lege Orokorreko 55. artikuluari jarraiki, II. Eranskinean aipatutako jarduerak eta instalazioak lizentzia administratiboaren erregimenaren menpe egongo direla. Aipatutakoen artean AGUA DE INSALUS S.A. enpresak Lizartzan gauzatutakoak daude eta, Lege horren 56. artikulua araberak, jarduera-lizentziak jarduera

saikatu bat ezartzea nahiz berau handitzea edo berritzea barne hartzen du.

**AINZAT HARTURIK.-** 3/98 Legeko 65 a) artikuluan jasotakoaren arabera, eta dagozkien zigorrei kalterik egin gabe, alkateak jarduera batek beharrezko lizentziarik gabe funtzionatzen duela jakitenduenean eta jarduera legeztatzeko modukoa baldin bada, haren titularrari errekerituko dio egoera arauen barruan jar dezala. Horretarako epea emango zaio, eta epea ezingo da sei hilabetekoa baino luzeagoa izan, behar bezala justifikatutako kasu berezietan izan ezik. Halaber, jardera itxi egin ahal izango da egoerak hori egokia dela erakusten badu, eta interesatuari entzun ondoren.

Hori guztia ikusita, **HAUXE ERABAKI DUT:**

**Lehenik.-** AGUA DE INSALUS S.A. enpresari jarduera legeztatzea, bai Lizartzako U-2 sektorean dagoen Pabilioiari dagokionez, bai U-5 sektorean dagoen Ontziraketa Eraikinari dagokionez. Hortaz, dagozkion jarduera-lizentziak tramitatzeko 6 hilabeteko epea emango zaio.

**Bigarrenik.-** Interesdunei 10 eguneko epea ematea, jakinarazpena jasotzen duten egunetik zenbatzen hasita, beren eskubideak babesteko bidezkoztat jotzen dituzten alegazioak aurkezteko.

#### UR ERREZIBOEN ONARPENA

Joseba Egibar Artola, Lizartzako Udaleko Alkate-Lehendakariak 2005eko Urtarrilaren 31ean, ondorengo EBAZPENA luzatu du:

**EBAZPENA.-** 2004ko 4. Hiruhilabeteari dagokion Uraren Zergaren errolda iadanik egina dago alta eta baja guztiak eguneratu ondoren.

Denetara 281 errezibo dira eta kobratu beharreko kopurua,  
3.957,84 €

Beraz, espediente osoa ikusirik eta kontutan izanik, bere aurrean  
ERABAKI DUT:

#### 2004 URTEKO 4. HIRUHILABETEKO URAREN ZERGAREN ERROLDA ONARTZEA

Ebazpen hau behin-betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio  
bideari. Hortaz, beronen aurka Administrazioarekiko Auzi-Errekurtsua aurkeztu  
ahal izango dute interesatuek, Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiak Bilbon  
duen Administrazio Liskarretako Salan, iragarki hau argitara ematen den  
hurrengo egunetik bi hilabeteko epean, aldez aurretik udaletxeari adierazita  
legeak, Herri Administrazioen Lege Arauei eta Administrazio Ihardunbide  
Arruntari buruzkoak, 110.3 artikuluan dioen bezela.

#### ZABORREN ERREZIBOEN ONARPENA

Joseba Egibar Artola, Lizartzako Udaleko Alkate-Lehendakariak 2005eko  
Urtarrilaren 31ean, ondorengo EBAZPENA luzatu du:

EBAZPENA.- 2004ko 4. Hiruhilabeteari dagokion Zaborraren Zergaren errolda  
iadanik egina dago alta eta baja guztiak eguneratu ondoren.  
Denetara 328 errezibo dira eta kobratu beharreko kopurua,  
3.123,67 €

Beraz, espediente osoa ikusirik eta kontutan izanik, bere aurrean  
ERABAKI DUT:

#### 2004 URTEKO 4. HIRUHILABETEKO URAREN ZERGAREN ERROLDA ONARTZEA

Ebazpen hau behin-betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Hortaz, beronen aurka Administrazioarekiko Auzi-Errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute interesatuek, Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazio Liskarretako Salan, iragarki hau argitara ematen den hurrengo egunetik bi hilabeteko epean, aldez aurretik udaletxeari adierazita legeak, Herri Administrazioen Lege Arauei eta Administrazio Ihardunbide Arruntari buruzkoak, 110.3 artikuluan dioen bezela.

#### GURRUTXAGA ANAIK

**IKUSIRIK.-** 1999ko Maiatzaren 28ko dataz, famili bikoitzeko etxea egiteko lizentzia eman zaitzaiela Gurrutxaga Anaiei. Lizentzi hori indarrean jartzeko, Gauzatze egitasmoa aurkeztea eskatu zen.

**IKUSIRIK.-** 2002ko Martxoaren 22ko dataz, Gurrutxaga Anaiek Famili bikoitzeko etxearen gauzatze egitasmoa aurkeztu zutela eta 2002ko apirilean, Obratako baimena eman zitzaizela.

**IKUSIRIK.-** Birplanteatze akta egin ondoren, etxeari dagokion hormigoizko egitura gauzatu dela soilik, eta urte bete badela jada, obrak geratuta daudela eta jarraitasunik izan ez dutela.

**KONTUTAN HARTUAZ.-** Orokorrean, obra nagusietako baimenek urtebeteko epea izaten dutela, eta epe horren barruan burutzen ez badira, espreski obra hasi aurretik egitasmoan epe zabalagoa zehaztu beharko dela (obren konplexutasuna kontutan hartua) edo behin obrak hasita, epearen luzapena eskatu beharko dela.

Kontutan hartuaz, hasitako obrak urtebete baino epe luzeagoan geldituta egon direla eta egitura soilik burututa dagoela, eta Udal Teknikariak luzatutako txostenaren arabera, ERABAKI DUT:



- 1.- Obra bukatzeko gehienez 8 hilabeteko epea ematea. Epe horren barruan burutzen ez badira, berriz ere beharrezkoa den baimena eskatu eta dagozkion tasak ordaindu beharko dira.
- 2.- Obrak duen egoera kontutan hartuta goiko atalean azaldutakoa burutuko ez balitz, orain arte eraikitakoa botatzea eta terrenoa lehengo egoerara itzultzea eskatzea.

Era berean, adierazten dut, eskubidea duela erabakiaren aurka jotzeko. Erabaki honen aurka berraztertzeko errekurtsua jar daiteke nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsuaren aurretik; beti ere, 30/1992 Legearen<sup>1</sup> 116. artikulua eta hurrengoaren arabera. Horretarako, hilabete bat izango da erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsua zuzen-zuzenean jar daiteke, aldeztu aurretik berraztertzeko errekurtsorik jarri gabe. Bi hilabete izango dira horretarako, dekretu honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita; eta, aurkeztu, Alkateari aurkeztu behar zaio.

#### SEASKA ETXEBIZITZAK – FIANTZAK ITZULTZEA

**IKUSIRIK.-** A-4 gunean, urbanizazio lanak burutu eta 26 babes ofizialeko etxebizitzak eraikunza obrak amaitu direlarik, eta hauek eragin zezaketen kalteak bermatzeko, Seaska Etxebizitzak, S.L.k jarritako, 132.939 eta 150.000 €-tako bermeak itzultzeko eskaera.

**KONTUTAN HARTUAZ.-** 2005-01-13 datako 8 zk.ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dela eskaera, eta hamabost egunetako epe horretan, ez dela inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Guzti hori kontutan izanik, ERABAKI DUT:

---

<sup>1</sup> Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea.

- 1.- Seaska Etxebizitzak, S.L.ri, A-4 gunean, urbanizazio lanak burutu eta 26 babes ofizialeko etxebizitzan eraikuntza obrak bermatzeko jarritzako 132.939 eta 150.000 €-tako bermeak itzultzea.

### LIZARTZAKO SENDAGILE ETXEA ERABERRITZEA – OBRETAKO 2. ZIURTAGIRIAREN ONARPENA

IKUSIRIK.- 2004ko Ekainaren 11an Alkatetza erabakiaren bidez, Lizartzako Sendagile Etxea Eraberritzeko Lanen kontratazio, behin betiko esleitu zituela.

KONTUTAN HARTUAZ.- 2004ko Ekainaren 23an, Lizartzako Udala eta Construcciones Francisco Aierbe, S.L.ren artean sinatutako Administrazio Kontratuaren arabera, Lizartzako Sendagile Etxea Eraberritzeko Lanak gauzatzeko konpromezua hartu zuen.

Guzti hori kontutan hartuaz, zera ERABAKI DUT:

- 1.- Construcciones Francisco Aierbe S.L,k aurkeztu eta Udaleko Arkitektoa den, Pilar Azurmendi Etxegaraik onetsitako, Lizartzako Sendagile Etxea Eraberritzeko Lanen 1. ziurtagiria (32.000,00) €-tako onartzea.
- 2.- Indarrean dagoen Aurrekontuko 3.0000.622.411.01.01.2003 partidaren kargura, 32.000,00 €-tako gastua onartu eta ordainketa agintzea.

### ANA IRIARTE GARBISU – ONDARE ERANTZUKIZUN ESPEDIENTEA

GAIA.- Ana Iriarte Garbisuren eskariz hasitako espedientea, ondare erantzukizunari buruzkoa.

IKUSIRIK.- Ana Iriarte Garbisuk 2003ko maiatzaren 19an aurkeztutako ondare erantzukizunari buruzko erreklamazioa, Lizartzako Lartzalde auzoko Iola-Bekoa baserriaren inguruetan dagoen auzo-bidean izandako

erorketarengatik egina; eta erreklamazioan Santa Ana kaleko 17. zenbakian duen bere etxebizitzan izandako kalte guztien ordainketa eskatzenduela.

**IKUSIRIK.-** Alvaro Reizabal abokatuak, Lizartzako Udalaren aurrean eta Ana Iriarte Garbisu anderearen izenean eta ordezkari gisa, aurkeztu duen idazkia, preskripzioa geldiarazi dadila eskatzeko, eta izandako lesioengatik kalte-ordain gisa 600.000 € ordaintzea erreklamatzeko.

**JAKINIK.-** 2004ko Ekainaren 4ko Alkatetzaren Dekretuaren bidez, Administrazioaren ondare-erantzukizunerako prozedura hasten dela, goian azaldutako erreklamazioan oinarriturik, eta interesatuei hamabost eguneko epea ematen zaiela bere eskubidearen defentsarako komenigarritzat jotzen dituzten arrazoibideak, agiriak edo informazioa aurkezteko. Halaber, Udal Zerbitzu Teknikoei txostena eskatzen zaie, bidearenegoera eta deskribapena azal ditzaten. Aipatutako akordioa jakinarazi zitzaien bai erreklamazioa egin duenari, bai OCASO aseguru-konpainiari.

**JAKINIK.-** 2004ko ekainaren 22an, Alvaro Reizabal abokatuaren idazkia aurkezten dela, Amaia Irigoyen Iriarte, Eneko Etxeberria Alvarez eta Carmen Pere Otano lekukoen froga eta 112 zerbitzuko langileena proposatzeko, eta froga-proposamenaren idazkiari erantsitako 8 agiriak espedientean sar daitezela eskatzeko.

**JAKINIK.-** 2004ko uztailaren 1eko Bilkura Nagusian hartutako erabakiaren bitartez, Udaleko Idazkari eta Kontuhartzailea prozeduraren instrukzio-egile izendatzen dela, froga egiteko aldia irekitzen dela eta Amaia Irigoyen Iriarte, Eneko Etxeberria Alvarez eta Carmen Perez Otanoren lekuko-froga onartzen dela; halaber, aurkeztutako agiriak onartzeko akordioa hartzen dela, eta 112 zerbitzuko langileekin erlazionatutako froga ukatu egiten dela, erreklamatzaileak froga-aldian interesgarritzat jotzen dituen txosten guztiak aurkezteko kalterik gabe, dokumentuzko frogatzat hartuko baitira.

JAKINIK.- Lekuko-froga egin ondoren, lekukoek azaltzen dutela istripua auzo-bide batean gertatu zela, eta bide hori gaur egun ez dela erabiltzen, pista berri bat, erabili ohi dena, egin delako.

JAKINIK.- 2004ko Abuztuaren 18an, udaleko Arkitektu Aholkulariak txostena eman zuela, bidearen egoera eta deskribapena azaltzeko.

JAKINIK.- Instrukzio-egileak 2004ko Azaroaren 15ean emandako Ebazpenaren bidez, ondare erantzukizunaren espedientea interesatuari jakin arazten zaiola, eta arrazoibideak aurkezteko hamar eguneko epea irekitzen dela. 2004ko Azaroaren 29an, Alvaro Reizabal abokatuak alegazioen idazkia aurkeztu zuela, udal administrazioaren eta OCASO aseguru-entitatearen erantzukizuna onar dadila eta erreklamatzailerik erreklamaturako diru kopuruaren bidez ordaina hartzeko eskubidea onar dezala eskatzeko.

KONTUAN IZANIK.- Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 54. artikuluan eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidea arautzen dituen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 139. artikuluan ezarritakoaren arabera, kalte-ordaina bidezkoa izateko honako hau eskatzen dela: alde batetik, kalte eraginkorra, ekonomikoki baloratu daitekeena eta indibidualizatua, kaltetuak pairatu behar ez duena, egotea; eta, bestetik, administrazio jardulari lepora dakioken kaltea izatea, zerbitzu publikoen funtzionamenduaren ondorio izateagatik, kausaren eta ondorioaren arteko erlazio zuzenean.

KONTUAN IZANIK.- Egindakoa ikusita, ez dela egiaztatu kausaltasun-erlazioerik erreklamatzailerik sofritutako erorketaren eta Lizartzako Udaleko zerbitzu publikoaren funtzionamenduaren artean. Udal Arkitektu Aholkulariak emandako txostenean

baieztatzen da erorketa gertatu zen tokia, landa-bidea edo mendi-bidea dela, bere garaian gurdi-bidea izan zela eta gaur egun ez dela erabiltzen. Txostenak dioenez, bidearen egoera, orokorki, nahiko ona dela, bere landa-izaera kontutan izanik, baina Beorregieta baserriko tartea garbitzea beharrezkoa dela, baserria bandonu-egoeran dagoelako.

**KONTUAN IZANIK.-** Administrazioa ez dela erantzule bide publikoetan gertatutako istripu guzti-guztietan, eta erantzule izateko instripua zerbitzu publikoen funtzionamendu-akats batengatik sortua izatea beharrezkoa dela; eta Udalari ezin zaiola exijitu lurzoru urbaniza ezinean zoladura jartzea edo lurzoruaren izaerarekin bat ez datorren egoera batean mantentzea; batez ere kontutan izanik, udal zerbitzu teknikoek emandako txostenean ikusitakoaren arabera, gertakarien tokia egoera onean dagoela, bidearen izaerari dagokionean (9. argazkitik 11.era), Beorregieta baserriko inguruetan izan ezik, baserria, erorketa gertatu zen tokiaren beste muturrean dagolearik (ikus 6. argazkia), eta baserriaren abandonu-egoerarengatik eragiten duen bide-tartea zaindu gabe dagoela.

**KONTUTAN IZANIK.-** lolabekoa baserriko auzokideek ez dutela bide hori erabiltzen, baserria Lizartzako udalerriarekin lotzen duen pista bat gaitu delako; eta aipatutako tartea lolabekoa baserria lolagoikoa baserriarekin lotzen duela, azken baserri hori auri eta bandonu egoeran egonik. Administrazioaren ondare-erantzukizuna egon ahal izateko, sofritutako lesioa zerbitzu publikoen funtzionamendu normalaren edo anormalaren ondorioa izatea beharrezkoa da, eta hori ez da gertatzen erreferentzia-kasuan; eta ezin dela exijitu zerbitzu publikoak kalitate handiagokoak izatea.

KONTUTAN IZANIK.- Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidea arautzen dituen azaroaren 26ko 30/1992 Legean eta ondare-erantzukizunaren arloko prozeduren Araudia onartzen duen martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretuan gai honen inguruan ezarritakoa.

Alkate-Lehendakari honek

HAU EBAZTEN DU:

Lehenengoa.- Ana Maria Iriarte Garbisu andereak aurkeztutako erreklamazioa ezeztea, kausaltasun-erlaziorik ez dagoelako Lizartzako Udaleko zerbitzu publikoaren funtzionamenduaren eta erreklamatzailerak sofritutako erorketaren artean; eta aurrekoa ikusita, eskatzen den erreklamazio ekonomikoa onargarria ez dela deklaratzeko.

Bigarrena.- Interesatuari ebazpen honen berri ematea eta jakin araztea ebazpenak administrazio-bidea bukatzen duela eta horren kontra jarri ahal izango dela –bere kasuan, aurretik, Udal honen aurrean eta, jakinerazpenaren hurrengo egunetik hasita, hilabeteko epean aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ondoren-, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiaren aurrean, jakinerazpenaren hurrengo egunetik hasita, bi hilabeteko epean.

#### EUROPAKO KONSTITUZIOAREN ERREFERENDUMA – 2005

2005eko Urtarrilaren 26an, eta indarrean dagoen Hauteskunde araubide Orokorren Legearen 26. artikuluan ezarritakoa betetzearren.

Legezko xedapen guztiak bete ondoren, udal honek ondoren adierazten diren hauteskunde-mahaiak eratu ditu, aipatzen diren pertsonen eta dagozkien karguez horniturik.

ATALA: 1 MAHAIA: 1

#### TITULARRAK

Mahaiburua	MAIDER ZUBELDIA BELDARRAIN	44163130 W	485
1. Mahaikidea	OLATZ GOGORZA AIZPURUA	72467032 N	223
2. Mahaikidea	IÑAKI BALERDI URDAMPILLETA	15918950 Y	119

#### ORDEZKOAK

Mahaiburuaren a	JESUS M <sup>a</sup> URKIZAR SARASOLA	72445548 X	431
Mahaiburuaren a	PABLO DONEZAR MANTEROLA	15867901 V	163
1. Mahaikidea	AITOR AZPIROZ BELDARRAIN	72445559 K	107
1. Mahaikidea	IGNACIA ETXEBERRIA LIZASO	72422625 H	183
2. Mahaikidea	JUAN MANUEL IBARGUREN ETXEBERRIA	15971520 K	261
2. Mahaikidea	ROKE AROZENA GOIKOETXEA	72445534 L	64

#### IBERDROLA DISTRIBUCIÓN ELÉCTRICA S.A.

IKUSIRIK.- 2004ko abenduaren 3an, Iberdrola S.A. enpresak, obratako baimen eskaria egin zuela, Txirrita Gudariaren Plazan, kuadro trifasikoa dagoen tokitik zanga bat egin eta argindarra lurperatuta eramateko, gero Araxes erreka gurutzatzen duen lineari konektatzeko.

IKUSIRIK.- 2005eko Urtarrilaren 5eko Alkatetza Dekretu bidez, obra hoiak egiteko baimena EZ EMATEA erabaki zela.

KONTUTAN HARTUAZ.- 2005eko Urtarrilean, Iberdrola S.A. enpresako arduradunarekin bildu ondoren eta obraren izaera hobeto azaldu eta aztertu ondoren, airetiko 12 bat metro kendu eta 7 bat metro berri eransten direla.

KONTUTAN HARTUAZ.- Soluzio egokiena ez bada ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak, beste aldetik lotura egiteko azaldu duen aurkako iritzia.

Guzti hori kontutan hartuaz, eta teknikariaren txostena ikusirik, eskatzailearen baimenari dagokionez, honako hau ERABAKI DUT:

Espediente honetako eskatzaileari obrak egiteko baimena EMATEA.

Era berean, adierazten dut, erabaki hau eskatzailearen kontrakoa edo aldekoa izan, eskubidea duela erabakiaren aurka jotzeko. Erabaki honen aurka berraztertzeko errekurtsua jar daiteke nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsuaren aurretik; beti ere, 30/1992 Legearen<sup>1</sup> 116. artikuluan eta hurrengoan arabera. Horretarako, hilabete bat izango da erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsua zuzen-zuzenean jar daiteke, alde aurretik berraztertzeko errekurtsorik jarri gabe. Bi hilabete izango dira horretarako, dekretu honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita; eta, aurkeztu, Alkateari aurkeztu behar zaio.

### ITELAZPI

IKUSIRIK.- 2004ko abenduan, ITELAZPI enpresak, Lizartzako Udalerrian, Basaitzaldea auzoan, Repetidore berri bat jartzeko planteamentua luzatu zutela Lizartzako Udalean. Eskariarekin batera, Repetidorearen izaera eta kokaera azaltzen duten aurreproiektua aurkeztu zela.

---

<sup>1</sup> Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea.



IKUSIRIK.- Lizartzako NNSSen arauera, gune hori urbaniezinak diren lurretan kokatzen dela eta hauen barruan, nekazaritza eta abeltzaintzarako eta herrigunearen babeserako diren lurretan.

IKUSIRIK.- Lizartzako Arau Subsidiarioak une honetan berrikusketa prozesuan daudela. Berrikusketa prozesuaren barruan lehen onarpena emateke dagoela, eta momentuz, lurzoru hiritarrezineko baimenak etenda daudela. Lehen onarpena eman eta gero, lehengo araudia eta proposatutako araudia aintzat hartzen dituzten egitasmoak bakarrik baimendu ahal izango direla.

KONTUTAN HARTUAZ.- Lehen onarpenerako idatzitako Dokumentuan, Repetidore eta abarren kokapena ahalbideratzen dela lurzoru hiritarrezinean. Beti ere baldintza mugatuetan:

.- Interes publikoko izaera duten azpiegiturak baimenduko dira (beti ere interes publikoko izaera udalak erabaki beharko du) eta ahal den neurrian lehendik horrelako azpiegiturak dauden lekuetan kokatuko dira, paisaiarekiko erasana txikitzearen eta azpiegitura horiek behar dituzten bestelako instalakuntzak optimizatzearen.

KONTUTAN HARTUAZ.- Aurkeztutako egitasmoa aztertu ondoren, repetidoreak izango lukeen zabalkuntza eremua Lizartzako Udalerritik kanpo kokatzen dela, Orexan hain zuzen.

Guzti hori kontutan hartuaz, eta teknikariaren txostena ikusirik, eskatzailearen baimenari dagokionez, honako hau ERABAKI DUT:

Espediente honetako eskatzaileari Lizartzan repetidore bat jartzeko eskariari **BAIMENIK EZ EMATEA**.

Era berean, adierazten dut, erabaki hau eskatzailearen kontrakoa edo aldekoa izan, eskubidea duela erabakiaren aurka jotzeko. Erabaki honen aurka berraztertzeko errekurtsua jar daiteke nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsuaren aurretik; beti ere, 30/1992 Legearen<sup>1</sup> 116. artikulua eta hurrengoaren arabera. Horretarako, hilabete bat izango da erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsua zuzen-zuzenean jar daiteke, alde aurretik berraztertzeko errekurtsorik jarri gabe. Bi hilabete izango dira horretarako, dekretu honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita; eta, aurkeztu, Alkateari aurkeztu behar zaio.

#### LIZARTZAKO JUAN XXIII ESKOLA

LIZARTZAKO JUAN XXIII Eskolak, 2004ko Abenduaren 23an, ikasturtearen zehar burutzen dituzten irteeratako, laguntza eskatu du.

Aurkeztutako datuak aztertu ondoren, ERABAKI DUT:

2004 urteko aurrekontuaren kargura, 600,00 €-tako diru-laguntza onartu eta baimentzea.

Udaleko Kontuhartzaitzari, aipatutako 600,00 €-tako diru-laguntza ordaintzeko agintzea.

#### OTSOLAR DANTZA TALDEA

OTSOLAR DANTZA TALDEAK, 2004ko Abenduaren 17an, 2005eko lhauteriak ospatzeko laguntza eskatu du.

---

<sup>1</sup> Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea.

Aurkeztutako datuak aztertu ondoren, ERABAKI DUT:

2005 urteko aurrekontuaren kargura, 600,00 €-tako diru-laguntza onartu eta baimentzea.

Udaleko Kontuhartzaitzari, aipatutako 600,00 €-tako diru-laguntza ordaintzeko agintzea.

JUAN JOSE MATEOS MORALES

**Kokalekua: Elbarrena Kalea, 16 – ARRATE BASERRIA**

**Jabea: JUAN JOSE MATEOS MORALES**

**IKUSIRIK.-** 2004ko urrian, Arrate baserrian eta Arrate zubiaren ondoan baimenik gabe obrak burutu direla.

**IKUSIRIK.-** 2004ko azaroaren 30ean, obrak gelditzeko agindua jaso ondoren, abenduaren 3an, Juan Jose Mateo Morales-ek obrak legezatzeko eskaria aurkeztu duela, egin dituen obren zenbait argibide emanek eta egindako barne antolamendu berria azaltzen dituzten planuak gehituz.

**IKUSIRIK.-** 2004ko abenduaren 22an, aurkeztutako dokumentazioari buruz toxstena egin zuela udaleko Arkitekto Teknikariak, bertan egindako lanei buruzko informazio zabalkuntza eskatzen zelarik.

**KONTUTAN HARTUAZ.-** 2005eko urtarrilaren 5ean, Juan Jose Mateo Morales-ekin elkarrizketa egin zela Udaletxean eta bertan, jabeak egindako lanen azalpen zehatza egin ziola Udalari eta egindako obrak zuzentzeko borondate onena azaldu zuela.

Guzti hori kontutan hartuaz, eta Udaleko Arkitekto Teknikariak eginiko txostenak aztertu ondoren, ERABAKI DUT:

- 1.- Egindako lanak erabat legeztatzeko, balkoiko obra eta fatxadako irekidurei dagokien proiektua aurkezteko eskatzea Juan Jose Mateo Morales Jaunari.
- 2.- Itxituraren kokaera eta izaera, udal teknikariek lehen bait lehen bertara ikustaldia egin ostean zehaztuko dira.

Era berean, adierazten dut, erabaki hau eskatzailearen kontrakoa edo aldekoa izan, eskubidea duela erabakiaren aurka jotzeko. Erabaki honen aurka berraztertzeko errekurtsua jar daiteke nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsuaren aurretik; beti ere, 30/1992 Legearen<sup>1</sup> 116. artikulua eta hurrengo araber. Horretarako, hilabete bat izango da erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsua zuzen-zuzenean jar daiteke, alde aurretik berraztertzeko errekurtsorik jarri gabe. Bi hilabete izango dira horretarako, dekretu honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita; eta, aurkeztu, Alkateari aurkeztu behar zaio.

#### A-4 LOKALEN EGOKITZEA – OBRETAKO 2. ZIURTAGIRIAREN ONARPENA

IKUSIRIK.- 2004ko Martxoaren 17ko Alkatetza erabakiaren bidez, Lizartzako Udalari Laga Beharreko Lokalak Egoitzeko Lanen kontratazio, behin betiko esleitu zituela.

KONTUTAN HARTUAZ.- 2004ko Martxoaren 24an, Lizartzako Udala eta Construcciones Francisco Aierbe, S.L.ren artean sinatutako Administrazio Kontratuaren arabera, Lizartzako Udalari Laga Beharreko Lokalak Egoitzeko Lanak gauzatzeko konpromezua hartu zuen.

---

<sup>1</sup> Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea.

Guzti hori kontutan hartuaz, zera ERABAKI DUT:

- 1.- Construcciones Francisco Aierbe S.L,k aurkeztu eta Udaleko Arkitektoa den, Pilar Azurmendi Etxegaraik onetsitako, Lizartzako Udalari Laga Beharreko eta Denda kokatzen den, Lokalak Egoitzeko Lanen 2. ziurtagiria (35.842,43) €-tako onartzea.
- 2.- Indarrean dagoen Aurrekontuko 3.0000.601.511.04.01.2004 partidaren kargura, 35.842,43 €-tako gastua onartu eta ordainketa agintzea.

#### U-1 SEKTOREA – HIRITARTZE OBREN GELDIARAZTEA

**GAIA.-** U-1 Sektorean, Hiritartze Proiektua onartu gabe egonda, hiritartze obren geldiaraztea, eta zigor espedientearen hasiera.

**IKUSIZ.-** 2004ko Abenduaren 15ean, Udal Arkitektuak egindako Txostena.

**KONTUTAN HARTUAZ.-** 2004ko azaroan, U-1 sektorearen hiritartze lanetan aurrikusitako zubiaren eraikuntza hasi zela, eta obrak baimendu ahal izateko hiritartze egitasmoa Eusko Jaurlaritzako uren Zuzendaritzak aurkako txostena eman zuela 2004ko abuztuan, zubiaren egitasmoa egokitzapen lan batzuk burutu behar zirela esanez, Ur Zerbitzuetako eskaera jarraituz, Jose Ignacio Galarragak eta Asmatu S.L. enpresak proiektuaren moldaketa egin eta Ur Zerbitzuetara igorri zutela eta Udalak ez duela oraindano aldeko baimenik jaso.

**KONTUTAN HARTUAZ.-** Esandako obrak, hiritartze egitasmoa onartu gabe hasi direla, txostenak dioen arabera, eta beraz ez dagoela obrak egiteko baimenik.

**KONTUTAN HARTUAZ.-** 1978ko ekainaren 23an onartutako 2187/1978 Errege Dekretuaz onartutako Hirigintza-Disziplina Erregelamenduko 8. artikulua.

**KONTUTAN HARTUAZ.-** 1978ko Ekainaren 23an onartutako 2187/1978 Errege Dekretuaz onartutako Hirigintza-Disziplina Erregelamenduko 90. artikulua.

**KONTUTAN HARTUAZ.-** Toki Erregimenaren 7/1985 Oinarri Legearen 21. artikulua xedatutakoaren arabera.

**ERABAKI DUT:**

- 1.- URBA U.T.E. enpresa, U-1 eremuan egiten ari den hiritartze lanen geldiarazpena agindu.
- 2.- Hirigintza arloan egindako arau-haustearen ondorioz zigor-espeditentea irekitzea eta arau hauste horren arduraduntzat jotzea, URBA U.T.E. enpresa.
- 3.- Zigor prozeduran instrukzio-egile izendatzea, ANA JESUS ZABALA GARMENDIA Anderea, Udalaren idazkaria.

Aditzera ematea espeditentea ebazteko eskumena duen organoa udalaren Alkate jauna dela, Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko premiazko neurrien martxoaren 6ko 5/1998 Legeko 11. artikuluan ezarritakoarekin bat.

- 4.- Ebazpen hau eta horren oinarritzat erabiltzen den txosten teknikoa jakinaraztea URBA U.T.E. enpresaren ordezkariari. Halaber, aditzera ematea 15 egun balioduneko epea izango duela ebazpen honen jakinerazpena egiten denetik, nahi diren alegazio eta agiriak aurkeztu ahal izateko, eta nahi bada legeak aurrikusten dituen frogen proposamena egiteko.

5.- Hilabeteko epea ematea, egindako lanak legeztatzeke udalaren aurrean.

6.- Interesatuei jakinaraztea azaroaren 26ko 30/1992 legeko 116. artikulua ezarritakoaren arabera, erabaki hau administrazio bidean irmoa eta behin betikoa denez, haren aurka administrazio-auzi gaietako helegitea jar daiteke, beti ere bi hilabetetako epean, jakinerazpen honen egunetik hasita kontatzen, eta Donostiako Epaitegiaren aurrean.

Dena den eta aipatutako artikulua arabera aukerako berraztertzeke errekurtsioa jar daiteke, Alkatetza honen aurrean, jakinerazpen honen egunetik hasita, hilabete baten epean.

### IBERDROLA

Eskabidea eta teknikariaren txostena ikusirik, eskatzailearen baimenari dagokionez, honako hau ERABAKI DUT:

Espediente honetako eskatzaileari obrak egiteko baimena EZ EMATEA, arrazoi hauengatik:

Lizartako Udalak, azken urte hauetan izugarritzko esfortzu ekonomikoa egiten ari da, airetik doazen azpiegiturak azpiratzeko. Kasu konkretu honetan, Lizartzako Udalak, 2004ko urte honetan bertan, eskaerak aipatzen duen airetiko linea hori bera lurperatzeko (zubitik pasatuz) aurrekontua eskatu zuen. Momentuz, aurrekontu horri aurre egiterik ez zuenez, aurrerago egitea erabaki zen.

Hau kontutan hartuta, airetiko lineak gero azpiratzea garestituko luketen obrak baimentzea ez da egoki ikusten, eta beraz, lotura lurrazpitik, A-4 zonaldeetik edo gerturago balego, beste leku batetik egitea egokiagoa ikusten da.

Era berean, adierazten dut, erabaki hau eskatzailearen kontrakoa edo aldekoa izan, eskubidea duela erabakiaren aurka jotzeko. Erabaki honen aurka berraztertzeko errekurtsua jar daiteke nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsuaren aurretik; beti ere, 30/1992 Legearen<sup>1</sup> 116. artikulua eta hurrengoaren arabera. Horretarako, hilabete bat izango da erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsua zuzen-zuzenean jar daiteke, alde aurretik berraztertzeko errekurtsorik jarri gabe. Bi hilabete izango dira horretarako, dekretu honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita; eta, aurkeztu, Alkateari aurkeztu behar zaio.

#### GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA – MATERIAL BILKETA

**IKUSIRIK.-** Udalaren zerbitzu teknikoek 2004ko azaroaren 17an emandako txostena, obrarako materialak biltzen diren toki biri buruzkoa; Ilarratsu inguruan, landalurren katastroko 3. Poligonoko 23. lurzatian, errepidearen eta ibaiaren artean dago. Lurzatiaren jabea Gipuzkoako Foru Aldundia da.

**JAKINIK.-** Aipatutako gunek urbanizagarria ez den lurlean daudela eta nekazarita-ustiapenari loturiko erabilerak baino ez daudela baimenduta. Hortaz, ez dauka obrarako materiala biltzeko jarduera egiteko baimenik.

**JAKINIK.-** Gunea Araxes ibaia eta errepidea mugakide dituen, Eusko Jaurlaritzaren Uren Zerbitzuaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Errepide Sailaren baimena beharko lukela.

**AINZAT HARTURIK.-** Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legeko 84. artikuluan ezarritakoarekin bat, herri-administrazioek emandako lizentzia edo baimenek ez dutela esan nahi titularrak libre daudela tokiko erakundeek lizentziak lortu

---

<sup>1</sup> Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea.



behar izatetik. Horrenbestez, beste organo batzuen aldetik lor ditzaketen lizentziez gain, derrigorrezkoa da udalaren baimena edukitzea.

**AINZAT HARTURIK.-** Ibaiertzak antolatzeko Arloko Planak espresuki debekatzen duela edozein material biltzea uholdeak izanez gero oztopo izan daitekeen lekuetan, kasu honetan gertatzen den bezala, dauden material, etxola eta makinaren ondorioz.

**AINZAT HARTURIK.-** Hirigintza arloko arauen arabera, nahasitako ordena urbanistikoa berrezartzeko espedienteari dagokionez arduradunak Gipuzkoako Foru Aldundia da, materiala bildu deneko lurzatien jabeak baita.

**AINZAT HARTURIK.-** Lurzoruaren araubide eta balorazioei buruzko apirilaren 13ko 6/1998 Legeko 20. artikuluan eta horrekin bat datozen artikuluetan xedatutakoa, apirilaren 9ko 1346/76 Errege Dekretuko 178. eta 184. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoa (Lurzoruaren Erregimenari eta Hiri Antolaketari buruzko Legearen Testu Bateratua onesten duena) eta 2187/1978 Errege Dekretu bidez onetsitako Hirigintzako Diziplinari buruzko Araudian ezarritakoa.

**AINZAT HARTURIK.-** Lizartzako Udaleko Antolamendurako Ordezko Arauetan ezarritakoa.

Alkate-udalburu honek, **HAU ERABAKI DU:**

1.- Urbanizatu ezin den lurrean materiala biltzearen ondorioz hautsitako ordena urbanistikoa berrezartzeko espedienteari hasiera ematea. Nekazaritza-ustiapenari loturik dauden erabilerak baino ez daude baimenduta eta, hortaz, obrarako materialak bertan biltzea ez dago baimenduta..

- 2.- Hilabete bateko epea ematea, ebazpen hau jakinarazten denetik zenbatzen hasita, bildutako material guztia kentzeko. Hala egiten ez bada, dagokion zigor-espedientea irekiko da.
- 3.- Gipuzkoako Foru Aldundiari, hamabost eguneko epea ematea, ebazpen hau jakinarazten zaion egunetik zenbatuta, bere eskubideak defendatzeko alegazio eta agiriak aurkez ditzan, egokitzen joz gero.
- 4.- Ebazpen hau Gipuzkoako Foru Aldundiaren Garraio eta Errepide Sailari eta Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolaketa eta Ingurumen Saileko Uren Zerbitzuari jakinaraztea.”

#### OBRATAKO BAIMENA

BITTOR ALTUNA ARRITEGI – 642/2004

CARMELO GOIKOETXE GOIKOETXEAUNDIA – 55/2005

ESTANIS AGIRRE ZABALA – 136/2005

PEDRO M<sup>a</sup> BALERDI ZALAKAIN – 138/2005

FELIPE ARRESEIGOR LERTXUNDI – 139/2005

#### **10.- BESTELAKOAK**

Alkateak, 2005eko Martxoaren 8an, Udaleko Erregistro Orokorrean sartutako idatziaren berri ematen da, eta honela dio:

“Joseba Egibar Artola, Lizartzako Udaleko Alkate-Lehendakari bezala, Udalbatzari agertzen diot:

Lizartzako Udalaren izenean, Tolosaldea Garatzen eta Tolosaldeko Mankomunitatearen Ordezkaritzari uko egiten diodala”.

Udalbatza jakinaren gainean gelditzen da.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, goizeko bederatzia laurdena gutxiago direnean.